

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Gurea komedia ote?

RAMON SOLA > 11

FLOR VELLBER, psikologoa:

«Gertuko pertsona baten desagerpena kudeatzea da zailena» > 22

2014ko martxoaren 29a | VIII. urtea • 359. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ORDUAREN JIRAKO APETAK > 4



Arrazoi politikoek margotzen dute ordu-eremuen mapa 04

Egiptoko militarrek hiesa sendatu dutela diote 07

Europar Batasuna aztergai Bilbon, GITE-IPESen eskutik 08

Entziklopedia ibiltariak 12



Europako ekoizpen ekologikoko araudia estutzeko asmoak 19

E.lkarrizketa: Flor Bellver, psikologoa 22

Berdela, ezezaguna zaigun arrain urdina 25

Infraganti: Iraia Okina 28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Irredentismoa nazionalismo klase garrantzitsu gisa
- 09 **Koldo Sagasti:** Pantojaren interesa
- 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Plaka bat Olarani
- 12 **Ramon Sola:** Gurea komedia ote?
- 17 **Amaia Agirre:** Negarra
- 20 **Gorka Zozaia:** Hogeita hiru orduko egunak
- 21 **Garazi Goia:** Denek ez dituzte entzuten
- 25 **Galder Gonzalez:** #M27 Greba
- 31 **Mikel Olasagasti:** Azken agurra?



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

GOBIERNO VASCO
GOBIERNO VASCO
GOBIERNO VASCO

{ datorrena } **Iñaki Soto**

Irredentismoa nazionalismo klase garrantzitsu gisa

Krimean gertatu denaren harira, egunotan, amaitu ez nuen tesiaren apunteak berreskuratu ditut. Ez dut, ordea, Krimeaz hitz egingo. Ez dut auzia menperatzen eta, oinarritzko irizpide demokratikoez harago (herritarrek erabaki dezatela beretzat zer nahi duten eta erabaki hori errespetatua izan dadila), nire filia eta fobia geopolitikoaren defentsa besterik ez nuke egingo. Ez dut aurreiritzien bazka izan nahi, ez neure aurreiritziena, are gutxiago beste batzuen aurreiritziena.

Maila teorikoan, eta zehaztasun gehiagotara sartu gabe, Krimeakoa irredentismoaren adibide gisa uler daiteke. Irredentismoa nazionalismo klase bat da. Hain zuzen ere, iraganean egindako akordio politikoen ondorioz, borronteak edo bortxaz bere erreferentziatzeko etnia biltzen duen estatutik kanpo geratu den komunitatearen borroka litzateke irredentismoa. Adibidez, Irlandako iparraldean, errepublikarren borroka. 1922an, iparraldeko konderriak Errepublikaren sorreratik kanpo geratu ziren eta ordutik hona bertako abertzaleak irla politikoki batzeko borrokan ari dira.

Aditu askorentzat ordena aurkakoa da, ordea. Alegia, estatu batek «galdutako» lurralde bat berreskuratzeko duen politika litzateke irredentismoa. Nire ustez, ikuspuntu hau okerra da, Irlandako kasuak argi erakusten duenez. Adibidez, Gobernu irlandarrak ez du batasunaren aldeko politika aktiborik izan. Ez dut estatuen ikuspuntua irredentismoaren parte ez denik esan nahi, baina gehienek ere parte bat da, inondik inora ez fenomenoaren azalpen orokorra. Akatsa, nire ustez, botereari buruzko kontzepzioan dago. Nazionalismoa fenomeno politikoa da eta, ondorioz, boterearekin harreman zuzena du. Botere politikoa, ordea, ez da boterearen jarduna soilik, alegia, estatuena eta agintariena. Niri komunitateen eta herritarren irredentismoa interesatzen zait. Estatuen irredentismoan, interes geopolitikoek indar handia dute (horrexegatik, besteak beste, Estatu irlandarrak ez du ia ezer egin irlaren batasuna lortzeko). Agian, zilegia da. Komunitateenean, ordea, herritarren eskubideen eta interesen defentsa zentrala da.

Gaur egungo estatu gehienak multietnikoak dira. Hau egitate da eta, nire ustez, ez da ez ona, ezta txarra ere.

Gaur egungo estatu gehienak etnikoki hegemonistak dira, alegia, beren «bihotz-etnia» gainontzeko etniei inposatu nahi diete. Hau ere egitatea da eta, nire ustez, okerra da. Autore askok esaten dutenaren kontra, nazioen alorrean arazoa ez da «etnia bat, estatu bat» defendatzen duten abertzaleen proiektua (lehenik eta behin, proiektu hau honezkero ezinezkoa baita), baizik eta «estatu bat, etnia bat» bultzatzen duten agintariena. Hemen, ordenak emaitza alda dezake. Irredentismoan, berdin.

Edonola ere, nazioarteko komunitatearen babesaz luzaroan egin diren akordio zentzugabeen ondorioz eta «mundu ordena berrien» ondorioz, aurrerantzean irredentismoa auzi zentrala izango dela aurreikus daiteke.

IÑAKI, ZE URRUN DAGOEN KRIMEA

Bai. Ni, kristo guztia bezala, besteenaz ari naizenean, hein handi batean nireaz ari naiz. Alegia, Euskal Herriaz,

Askok esaten dutenaren kontra, arazoa ez da halabeharrez «etnia bat, estatu bat» defendatzen duten abertzaleen proiektua, baizik eta «estatu bat, etnia bat» bultzatzen duten agintariena

hau baita benetan ezagutzen dudana eta, batez ere, interesatzen zaidana. Euskal Herria estaturik gabeko nazioa den heinean, independentistion helburua estatu propioa lortzea den heinean (beste etniek eta nazioek duten neurri berean, gutxienez), irredentismoaren auzia gure errepide-mapetan sartzera behartuta gaude.

Alor honetan, gezurra dirudien arren, abantaila dugu: ez dugu estatu bat. Ondorioz, guretzat errazagoa da eszenatoki horretan nola jokatu beharko genukeen asmatzea. Gure buruari egin behar diogun galdera sinplea da: boterea lortuz gero, «besteak» beraiek «gu» tratatu gaituzten bezala tratatuko ditugu? Erantzuna eman aurretik, pentsatu beraiei nola joan zaien. Eta kontuan hartu eztabaida hauek ondoren egitea alferrik dela. Amaitzeko, azken aipu bat: iraina nazionalismoaren erregaia bada, irredentismoarena ere izango da. •

{ txostena } Jose Angel Oria

ORDUA ETA AGINTARIEN APETAK

Estatu espainolean, urte osoan ordutegia ez aldatzeko aukerak gora egin du, eta Krimean, Moskuko ordua hartu dute

Europar Batasunean, ordua aldatzea nahitaezkoa da 2001etik. Urtean bitan egiten den maniobra gaur gauean egin beharko dugu euskal herriarrok ere: igandeko goizaldeko ordu zetan ordulariak 60 minutu aurreratuko ditugu eta batbatean 3retan egongo gara. Ordubete galduko dugu, gero, udazkenean, berriz berreskuratzeko. Herritarrak nahasteko baino balio ez duen aldaketa dela esaten dute batzuek, eta ordua gehiago ez aldatzea proposatzen dute. Ordu aldaketarik egiten ez duten leku batzuetan, berriz, neurri hori hartzearen aldeko ahotsak entzun dira, azken bolada honetan: zenbat energia aurreztuko litzatekeen ere kalkulatuta omen daukate. Eztabaidak bizirik jarraitzen du.

Ordu aldaketa bakoitzarekin, ordu-eremuen mapa ere aldatzen da. Toki batzuetan, eguzkiaren arabeko orduarekin bizi dira; besteetan, eguzkiak esaten duena baino ordu batzuk lehenago, Euskal Herrian bezala; eta badaude naturak agintzen duena baino atzerago bizi direnak ere. A ze nahaste-borrastea!

FRANKLINEN PROPOSAMENA

Benjamin Franklin XVIII. mendeko politikari, zientzialari eta asmatzaile estatubatuarrak proposatu zuen, lehen aldiz, ordua aldatzea, baina arrakasta handirik gabe. 1784an egindako proposamenaren helburua energia aurrezte zen, eguzkiaren argia alferrik ez galtzea. Ideia horixe aipatzen dute, gaur egun ere, aldaketaren aldekoek.

Alemania izan zen, XX. mendean, ordu aldaketa ezarri zuen lehen herrialdea. 1970eko hamarkadako petrolio krisiak eragin zuen erabakia: erregai horren salneurria laukoiztu egin zen eta argindarrarenak ere gora egin zuen. Zerbait pentsatu beharra zegoen eta horixe bururatu zitzairen garaiko alemaniar agintariei. Gauza bera egingo zuten, berehala, beste herrialde askotan (gaur egun, 70en bat dira), baita frantses eta espainol estatuetan ere.

Alexanderplatz Berlin
erdialdeko plazan dagoen
Munduko Orduen Erlojua.
GAURB

«Egun-argia hobeto aprobatzeko egin zuten. Argindar gutxiago kontsumitzeko. Ustez. Ez dela errentagarria uste baitute askok. Gasolina kontsumoa igo egiten dela udako ordutegiarekin», zioen orain urtebete Idoia Etxeberriak, «Berria» egunkarian. «Benetan aurrezten al da

energia? Udako aldaketarekin badirudi zertxobait baietz. Argi ordu bat gehiago dugulako. Etxean argindarra %5 aurrezten dela diote. Eta neguan galdu genuena zer? Aldaketarekin, ordu-bete lehenago iluntzen zuen. Lehenago joaten ginen etxera. Lehenago pizten genituen ar-

giak. Eta berogailuak», erantsi zuen Etxeberriak.

Estatu frantsesean, 1976an ezarri zuten ordu aldaketa, energia aurreztuko zelakoan. Valéry Giscard d'Estaing presidenteak hartu zuen erabakia, petrolioaren krisiak eragindako giroan. Ekologia Ministerioak orain egiten dituen kalkuluen arabera, negutegi efektua eragiten duten gas isurketak murriztu egiten dira ordu aldaketari esker: 2030 arte, 100.000 tona karbono dioxido gutxiago. Edonola ere, begirale batek baino gehiagok uste du energia aurrezteko neurri hobekak badirela gaur egun, eta ordu aldaketa neurri zaharkitua dela.

ESTATU ESPAINOLEKO EZTABAIDA

Estatu espainolean, ordu aldaketaren inguruko eztabaida Parlamenturaino iritsi da. Aurkakoei argudio ugari jarri dituzte mahaiaren gainean, aldaketa gizakion osasunerako kaltegarria dela eta gure portaeran ere eragina duela adieraziz.

Loa kaltetzen du ordua aldatzeak, neurri horren aurkakoen arabera. «Neuroscience Letters» aldizkariak argitaratu emandako ikerketa bat aipatzen dute loaren kalitatea eta kantitatea kaltetzen dituela argudiatzeko. Bihar, irakurle askok nahikoa lo egin ez izana sentituko dute.

Bihotzekoak jota hiltzeko arriskua handiagoa da ordua aurreratu ondoren (eta txikiagoa udazkenean, erlojuak berriz atzera egiten duenean), loa eta gorputzaren betiko erritmoa aldatzen direlako, «American Journal of Cardiology» aldizkariak iaz argitaratu emandako ikerketa baten arabera. Alabamako Unibertsitateak 2012an egindako lan batek dio bihotzekoa izateko arriskua %10 handiagoa dela ordua aurreratu ondorengo astelehenean eta asteartean.

Zergatik? Aditu batzuek aipatzen dute ordua aldatzeak errit-



mo zirkadianoa ere aldatzen duela: 24 ordu errepikatzen den animalien eta landareen jardueraren zikloa, alegia.

Lan istripuen kopuruak gora egiten du. Christopher Barnes eta David T. Wagnerrek 1983tik 2006ra arte meategietan gertatutako istripuak aztertu zituzten. Konturatu zirenez, ordua aldatu ondorengo lehenengo astelehenean istripu gehiago eta larriagoak izaten ziren, langileek asteburuan bestela baino lo gutxiago egin zutelako.

Auto istripu gehiago izaten da. Douglas Coatek eta Sara Markowitzek ordu aldaketaren eta zirkulazio ezbeharren arteko lotura aztertu zuten. Ondorioztatu zutenez, AEBetan urte osoan ordua aldatuko ez balute, 171 oinezko gutxiago hilko lirateke autoek harrapatuta; eta istripuetan, 195 lagun gutxiago.

Ordenadorean alferkerian aritzeko joera handiagoa da ordua aldatu eta gero: denbora gehiago ematen omen da edozein webguneri begira edo mezu elektronikoa idazten, eta gutxiago lanean, "Journal of Applied Psychology" aldizkariak argitaratutako emandako lanaren arabera.

Burtsak behera egiten du, **bere buruaz beste egiten** dutenen kopuruak gora, eta eskolan azterketak egiten dituzten **ikasleek nota okerragoak** lortzen dituzte ordua aldatuz gero, neurri horren aurkakoek esaten dutenez.

Argudio horiek eta beste asko erabiltzen ditu Estatu espainolean ARHOE Espainiako ordelegiak arrazionalizatzearen aldeko batzordeak. Eta badirudi nahi dutena lortzeko bidean daudela.

LATINOAMERIKAN

Uruguain, aldiz, herritarren % 71k txalotu egiten du 2006an hasitako ordu aldaketa.

Joan den martxoaren 8an atzeratu zuten erlojua uruguaitarrek, neguko ordelegia jartzeko (kontuan hartu behar da orain udazkena hasi berria dela Hegoamerikako herrialdean). UTE argindar konpainia publikoak esan du urtean 10 milioi dolar aurrezten dituztela neurri

1784

XVIII. mendeko Benjamin Franklin estatubatuarrak proposatu zuen, lehen aldiz, ordua aldatzea, baina arrakasta handirik gabe. 1784an egindako proposamenaren helburua energia aurrezte zen, eguzkiaren argia alferrik ez galtzea.


1942

Estatu espainoleko egungo ordua Francisco Franco diktadoreak erabaki zuen, 1942an, Adolf Hitler bere aliatua Alemaniako agintean zegoela: Madrilen Berlingo ordu bera izatea erabaki zuen.

info+

Stefano Maggiolo italiar matematikariak leku bakoitzeko erloju orduaren eta eguzki orduaren arteko aldea adierazteko egindako mapa:

<http://i0.wp.com/poisson.phc.unipi.it/~maggiolo/wp-content/uploads/2014/01/SolarTimeVsStandardTime.png>



Euskal herritarroi Paris, Berlin eta Madrileko ordua dagokigu, gaur egun. GAUR8

horri esker. Ordu aldaketak Montevideo hiriburuan eta ekialdean aldeko iritzi gehiago du, Uruguai iparraldean baino.

Mexikoko ekialdean dagoen Quintana Roo estatuan, Mexiko hiriburuko ordu bera dute eta bertako sektore turistikoak aldatu egin nahi luke. Bertako Senatuak argi berdea eman dio aldaketari eta Diputatuen Ganberak ere gauza bera egingo duela dirudi. Aldaketaren aldekoek esaten dutenez, energia aurrezteaz gain, eskaintza turistikoa ere hobetu egingo litzateke: gaur egun, neguan, arratsaldeko 5etan iluntzen du eta orduan amaitzen dira turistek begira antolatutako jarduerak guztiak, Cancun eta Riviera Mayan, besteak beste. Gainera, ordua aldatuz gero, AEBetako ekialdeko bezeroen ordu bera izango lukete.

UKRAINATIK ERRUSIARA

Ordu aldaketa bakoitzarekin, ordu-eremuen mapa ere aldatzen

da, baina bestelako faktoreak ere egon daitezke mapa aldaketa horren atzean. Krimean izan dugu horren adibiderik garbiena. Bertako Parlamentuak hilaren 17an onartu zuen Mosku Errusiako hiriburuko ordua hartzea, Ukrainakoa alde batera utzita. Gaur gauean egingo dute aldaketa: bi ordu aurreratuko dituzte erlojuak.

Ukraina utzi eta Errusian sartzea erreferendum baten bitartez onartu ondoren (sekulako parte-hartze tasarekin, baieztokak botoen % 96,77 lortu zituen), bihurtik aurrera, ordulariek erakutsiko dute Krimea dagoeneko ez dela Ukraina.

EGUN BAT JANDAKO UHARTEAK

Askoz ere aldaketa ikusgarriagoa egin zuten Ozeano Bareko Samoan (200.000 biztanle inguru) eta Tokelaun (1.500 biztanle), 2011n: 24 ordu egin zituzten aurrera eta abenduaren 29tik zuzenean 31ra pasatu ziren (30etik pasatu gabe) eta

2012ari ongiatorria egiten lehenengoak izan ziren. Kasu horretan ere arrazoi ekonomikoak zeuden ordua, eta eguna, aldatzeko erabakiaren atzean.

Samoako ordua XIX. mendean erabaki zen, merkataritza harreman gehienak AEBetako Kaliforniako herritarrekin zituenez. Baina gauzak aldatu egin ziren, eta gaur egun, Txina, Australia eta Zeelanda Berriarekin harreman gehiago dituzte, gertuago daudelako, AEBekin baino.

Egoera hori ezerosa zen: Samoan ostirala zenean (Kalifornian bezala), Australian larunbata, eta negoziarik egiterik ez. Samoan igandea zenean, Australian astelehena. Kasu horretan ere, harremanik ez. Erlojua 24 orduz aurreratu arte, Samoa Sydney Australiako hiria baino 21 ordu geroago bizi zen, eta 3 ordu lehenago, gaur egun. Nazioarteko egun aldaketa lerroaren beste aldera pasatu ziren aipatutako bi lekuak, arrazoi ekonomikoen eraginez.

Arrazoi politikoak eta ekonomikoak ere garrantzitsuak izaten dira leku bakoitzeko ordua erabakitzeke garaian. Horren eraginez, munduan oso egoera ezberdinak ditugu. Stefano Maggiolo italiar matematikariak leku bakoitzeko erloju orduaren eta eguzki orduaren arteko alde ezin hobeto adierazten duen mapa egin zuen. Alderik ez duten tokiak zuriz margotu zituen, berdez eguzkia baino atzeratuago daudenak (zenbat eta ilunago, orduan eta alde handiagoa), eta gorriz eguzkia baino aurreratutago bizi direnak. Kolore gorria da nagusi mapan. Euskal Herria ere gorriz margotuta dago.

EUSKAL HERRIA, GORRIZ

Eguzkia goi-goian, punturik gorenean dagoenean eguerdia dela esan beharko genuke, baina gurean ordulariek ordu 2ak direla esango digute, bihartik aurrera. Gure ordulariak atzeratu egin beharko genituzke, eguzkiaren erritmoari eutsi nahi izanez gero. Gauza bera gertatzen da Errusiako leku gehienetan, Txinan (mendebaldean, batez ere), Argentinan, Sudanen, Tanzanian, Aljerian, Kanadan...

Britainia Handia, berriz, zuriz margotuta dago. Izan ere, Londres hartu zen, bere garaian, erreferentzia moduan meridianoak erabakitzeke.

Honela dio euskarazko Wikipediak: «Greenwich (Londresen dago) meridianoak 0°-ko longitudea finkatzen duenez, beste meridianoez bere angeluaz bereizten dira. Zirkulu batek 360 gradu dituenaz, Greenwich meridianoarenekin beste aldeko meridianoa 180°-ko longitudekoa da. Horrexegatik, Greenwichetik mendebaldeantze, 'Mendebaldeko hemisferioa' dago (0° eta 180° arteko mendebal-longitudea); ekialderantz, ostera, 'Ekialdeko hemisferioa' dago (0° eta 180° arteko ekialde-longitudea).

Ordu-eremu estandarrak Lurraren esferoidea ilargi formako 24 iruditan zatituz defini daitezke geometrikoki, Wikipediak esaten duenez. «Eremu horiek mugatzeko, 15°-ko longitudeko distantziara dauden meridiano-



Ezkerreko irudian, erosioak itxura aldatutako eguzki-ordulari zahar bat. Eskuinean, bihartik aurrera Moskuko ordua emango duen ordulari bat, Krimeako eliza batean. GAUR8

15°

Ordu-eremu estandarrak Lurraren esferoidea ilargi formako 24 iruditan zatituz defini daitezke geometrikoki. Eremu horiek mugatzeko, 15°-ko longitudeko distantziara dauden meridianoak erabiltzen dira.

ak erabiltzen dira. Hala ere, ordu-eremu gehienek ez dute forma hori errespetatzen, arrazoi politiko eta geografikoen ondorioz itxura irregularra baitaukate. Ordu-eremu askok muga politikoei jarraitzen diete, eta zenbait kasutan, uneko egoera politikoaren araberrako aldaketak jasaten dituzte. Bestalde, zenbait herrialdeetan, ordua sasoiaren araberrera aldatzen da, esaterako udan, energia aurrezteko».

FRANCOREN ERABAKIA

Estatu espainola gorritz margotuta dauka Maggiolo matematikariak, Francisco Franco diktadoreak, 1942an, Adolf Hitler aliatua Alemaniako agintean zegoela, Madrilen Berlingo ordu bera izatea erabaki zuelako.

Garai hartan, Bigarren Mundu Gerra hirugarren urtean zegoela, Portugalek, Britainia Handiak eta Estatu frantsesak erabaki bera hartu zuten. Begirale batzuek diote gerrak eragin zuela bazter guztietan ordu bera izatearen beharra, bonbardaketak-eta behar bezala koordinatzeko. Edonola ere, Portugalek eta Britainia



Handiak atzera egin zuten gerra bukatzean, eta gaur egun, Euskal Herrian baino ordu bate «geroago» bizi dira, baina neguan eguzki-orduarekin bat eginda. Guri dagozkigun bi estatuek Berlingo orduari eutsi zioten eta horrexegatik Euskal Herria gorritz margotuta ageri da aipatutako mapan, ez bertako boto-emaileek joera ezkertiarra dute dela.

“The New York Times” egunkariak Estatu espainoleko egoera aztertu berri du.


«Espainiak, gaueko 10etako afarien herrialdeak, bere ordularia berrabiatzeko garaia iritsi ote den galdetzen dio bere buruari», diote New Yorkeko kazetakoek. Geroago afaltzen da bertan, beste inon baino geroago izaten dira telebistako programarik ikusienak, *prime time*-a alegia, iluntzeko 8ak arte lanean egoteko joera oso hedatuta dago...

Egunkariak eranstean du Mariano Rajoyren Gobernua ordua aldatzearen alde dagoela, Londreskoa hartzeko. Aste honetan bertan ezagutzera eman den inkesta baten araberrera, Estatuko herritarren % 68,4k bat egiten du

aldaketa horrekin. Opinea Institutuak egindako inkestak dioenez, gizonen artean aldeko joera handiagoa da (%72) emakumeen artean baino (%64).

TXINAKO KASUA

Edonola ere, Txinako mendebaldean dagoen Xinjiang probintzian, eguzki orduaren eta erlojuaren arteko alde askoz ere handiagoa da: lau ordukoa. Izan ere, Asiako herrialde erraldoi hartan ordu bakararra dute, Pekin hiriburukoa, hau da, uigur herraren lurraldetik 4.000 kilometrorra dagoen lekukoa. Begirale batzuek diotenez, Txinako agintariak herritarren kontrol politikoa indartu nahi dute, 1.350 milioi lagun gosalteke, telebistan berriak ikusteko eta afaltzeko ordu bera ezarritz. Edonola ere, han etniako herritarren (agintariak Ekialdeko Turkestanera eramandakoak, bertako oreka demografikoa aldatzeko asmoarekin) nagusi diren hirietan, Urumyin esaterako, errespetatzen dute ordu ofiziala, baina uigurak nagusi diren lekuetan, Kashgarren adibidez, ez diote kasurik egiten.



{ irakurrita }

Egiptoko militarrek hiesa sendatu dutela esan dute eta sare sozialak txistez bete dira

joseangel.oria@gaur8.info

Herriarrak eta politikariak baztertu eta agintea erabat bereganatu duen Egiptoko armadak zientzialariak eta medikuak ere baztertu nahi dituela dirudi, hiesa eta hepatitis sendatzeko gai den tresna bat garatu duela adierazi baitu. Horiek bai militar azkarak! «Egiptoko armadak iseka egin die hiesdunei, 'gaixotasuna sendatzen duen' gailu bat aurkeztuta», idatzi dute **ragap.es**

LGBTB komunitateari zuzendutako atarian. «Gustu txarreko txistea dirudi, baina ez du inolako graziairik. Ulergaitza egiten zaigu herrialde bateko agintari gorenak tankerako ekimen bati sostengua ematea, Egiptoko telebista publikoaren bitartez GIB giza immunoeskasiaren birusa ezabatuko duen gailu iraultzaile baten ustezko sorkuntza munduari aurkezteko», dio Ragapek.

Erantsi dutenez, Ibrahim Abdel-Att armadako jeneralak adierazi zuen CCD Complete Cure Device (euskaraz, erabat sendatzeko gailua) izeneko «Indar Armatuaren garaipen bat dela». «Aurkezpen ekitaldian, Adli Mansur Egiptoko egungo presidentea eta Abdelfatah al Sissi indar armatuetako agintari gorena bera ere izan ziren. Jakina, bertaratu zirenen artean, ez zegoen aipatutako gailuaren benetak eraginkortasuna bere presentziarekin berretsiko zuen ez zientzialari ezagunik ez ikerlaririk. Ezinegon eragiten du herrialdeko Osasun Ministerioak aparatuari argi berdea eman izanak».

Oso bestelako balorazio egin dute **Errusiako Ahotsaren ruvr.ru webgunean**. «Errusiako Ahotsaren korrespontsala izan zen orain arte ezkutuan eduki duten proiektuaren arduradun nagusiekin hitz egiteko aukera izan zuen lehen kazetari atzerriarra. Indar armatuaren Ingeniaritza Sailean izandako elkarrizketan, teknologia berriaren sortzaileak egon ziren: Ibrahim Abdel-Att jenerala, zerbitzu medikua, eta zerbitzu bereko Ahmed Amin koronela. Azken horrek esplikatu zizkigun teknologia berriaren ezaugarriak», zioen egileak, harrotasun puntu batekin.

Erantsi duen esplikazioaren arabera, Ingeniaritza Sailak bi gailu garatu ditu: bata birusa antzematen du, eta besteak


hil egiten du. Tratamenduan erabiltzen dituzten prestakinak ere beraiek garatu dituzte eta, militarrek kazetariari esandakoaren arabera, medikamentu eta gailu berriak bai aberekin bai gizakiekin probatu dituzte. Hogei urteko lanaren fruitua omen da hiesa eta C hepatitis sendatzeko gauza den metodoa. «Aizu, eta Abdel-Att jeneralak esan zuen medikamentuen azterketa kimikoen % 70 inguru Errusiako Dubna hiriko laborategietan egin zirela».

Errusiako hedabideak idatzitakoaren arabera, tratamenduak sei hilabete

irauten du eta merkea da, «Mendebaldean izango lukeen salneurria baino askoz ere txikiagoa izango du». Beraz, «langile soil batek ez luke arazorik izango tratamendua bere poltsikotik ordaintzeko». «Berehala jarriko dugu abian. Aurrena, erietxe militarretan hasiko gara lanean, eta ondoren, erietxe zibiletan. Ofizialki, uztailaren 1ean hasiko gara gaixoak tratatzen».

CNN telebista katearen webguneak beste datu interesgarri bat eskaini du: «Alaren laguntzari esker lortu du Abdel-Attek hiesa eta hepatitis sendatzea. Bere gailuak gaixoaren odola ateratzen du eta, tratatu ondoren, odol garbia itzultzen dio». **“Abc” egunkari kontserbadore espainolak** idatzi du zientzialariek zalan-tzan ipini dutela «ustezko asmakizuna». Madrileko egunkariak **“Al Watan” Egiptoko egunkariak** argitaratutako artikulu bat ere ekartzen du gogora. Bertan, Essam Heggy presidentearen aholkulari zientifikoak dio jeneralaren adierazpenek «Egiptoko zientzialarien eta zientzialarien irudia kaltetzen dutela».

Egiptoko hedabideetan, Ibrahim Abdel-Att jenerala askotan agertu da azken asteotan, gailu berria goraipatzen. **Elsonline.com** webgunean irakurri dugunez, militarrek esan du konpainia multinazional batek 2.000 milioi dolar eskaini zizkiola patenteagatik. CCDren aurkako «konspirazioak» ere salatu ditu Abdel-Attek. Ez da harritzekoa Egiptoko sare sozialetan gaiari buruzko txiste ugari zabaltzea. Militar horiek Mubarak diktadorea kanporatu zuen herrialdeko agintean egoteak beldurra eragiten du. Graziarik gabeko txistea da!



Ibrahim Abdel-Att jenerala, bideo batetik hartutako irudian.

GAUR8

EUROPAR BATASUNA

Adituek egungo eredua eta bestelakoak mahaiaren gainean jarriko dituzte

 POLITIKA / joseangel.oria@gaur8.info

GITE-IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileak antolatuta, apirilaren 5a bitartean, Europak munduan eta Euskal Herrian duen rola bestelako begirada batekin aztertzeko hitzaldiak eta mahai-inguruak egingo dira Bilbon, agintariak eta hedabide nagusiek ezarri nahi diguten eta denok jasaten dugun eredua bakarra ez dela azaltzeko.

Euroa, porrot eginda-ko bankuen erreskateak, austeritatea, murrizketak, herriarren haserre, ezinegona, demokrazia eza, pobrezia-aren mehatxua... Hitz horiek eta tankerako beste asko bururatuko zaizkio irakurleari Europar Batasuna terminoa entzutean. Itxaropena eta ilusioa, gauzak beste era batera antolatzeko aukera, ez dira kabitzen gaur egungo Europa horretan, eta hain garesti ateratzen ari zaigun Merkelek eta beste agintariak diseinatutakoa baino ez dela posible sinetsarazi nahi digute. Horrela al da?

Ezezkoan daude GITE-IPES Gizarte Ikerketarako Talde Eragileko kideak. Apirilaren 5a bitartean, Europak munduan duen rola bestelako begirada batekin aztertzeko hitzaldiak eta mahai-inguruak egingo dituzte, ezarri diguten eta denok jasaten dugun eredua bakarra ez dela azaltzeko. Gauza bera egingo dute Europak Euskal Herrian duen eragina esplikatzeko.

«Krisi testuinguru honetan, Europar Batasunaren oraina eta geroaren gaineko zalantza piztu da», diote GITEko antolatzaileek, egunotan egiten ari diren jardunaldien berri emateko banatutako oharrean. Berez, abiapuntu ona da hori, bestelako etorkizuna eraiki nahi badugu, egungo egoera zalantzan ipintzea beharrezkoa delako.

Baina berehala sortzen da ezinegona, ondoren antolatzaileek herriarrontzat oso urrutikoak diren kontzeptuak aipatzen dituzte-eta: «Euroaren geroaz,

erritmo ezberdinetako Europez, Troikaren dinamizazioaz, hegosaldeko herrialdeez, erreskateez... ari gara etengabe. Elementu horiekin egiten dugu topo tokiko irakurketa politiko eta ekonomikoak egiten ditugunean eta ezinbestekoak dira burujabetza prozesuetan dauden herrialdeen geroa marrazterako orduan. Zer esanik ez, European sozialismoa eraikitze bideez aritzen garenean».

Horiek guztiak herriei ezarri zaizkien elementuak dira; ez dira herriek sortutakoak, herriek sufritzen dituztenak baizik. «Madrilek Krisiaren harira hartutako neurriak direla, Katalunia eta bere burujabetza prozesuaren inguruan hartutakoak direla... Problematika horiek guztiak beti, uneraren batean, Europako elementu horietara helden dira. Hori transmititu nahi genuen; European eragina gero eta argiago topatzen dugula elementu horien inguruan, problematika askoren hondoan atzematen dela elementu horiek hor daudela», adierazi du Gorka Zozaiak.

AIPATZEN EZ DIREN KEZKAK

Esanguratsua dirudi kezka eta erronkak giza eskubideen ingurukoak, emakumearen egoerari buruzkoak edota ingurumenarekin lotutakoak izan beharrean, Troikaren kontuak eta erreskateak izatea, diruaren zerbitzurako elementuak direlako... «Zuk aipatzen dituzun gai horien inguruan zentratu beharrean, guztia euroak duen arazoa fokalizatzen da, edo European dugun egoera honetan denok

EGITARAUA

• **Martxoaren 29an**, Bilboko **La Bolsan**, goizeko 10etatik aurrera, “Europa, munduan” gaiaren inguruko mahai-ingurua. **Joseba Felix Tobar-Arbuluk** alde ekonomikoa aztertuko du, **Unai Vazquezek** Latinoamerikari buruz hitz egingo du eta **Txente Rekondok** Ekialdeko egoera hurbilduko digu.

• **Apirilaren 3an**, Bilboko **Zirika!** herrigunean, arratsaldeko 7etan hasita, **Nekane Juradoren** hitzaldia, gaztelaniaz: “Emakumeak eta pobrezia, European”.

• **Apirilaren 5ean**, Bilboko **La Bolsan**, goizeko 10etatik aurrera, “Europa, Euskal Herrian” gaiari buruzko mahai-ingurua.

Esti Redondok elikadura eta lehen sektorearen inguruko kontuak izango ditu hizpide, **Xabier Lasak** hezkuntza eta gazteriararen inguruan Europatik iristen diren irizpide eta politikak aztertuko ditu eta **Karmelo Landak** politika zehatz horiek zein politika orokorretatik datozen azalduko du.

Ezkerrean, Angela Merkel Alemaniako kantzilerra, Parlamentuan. Eskuinean, manifestari bat eta polizia bat aurrez aurre, Lisboan. O. ANDERSEN-P. DE MELO MOREIRA | AFP

gerrikoa estutu behar dugula esaten zaigu, eta Troiak eman-dako irizpideak bete egin behar direla. Europa bera ez da zalantzan jartzen eta esaten digutena da orain arte ezagutu dugun European eta ongizateari eusteko, horiek direla egin beharreko urratsak: Troiak agindutakoak, Europako hegoaldean beste politika batzuk ezarri behar direla, iparraldearekin alderatuta...», esplikatu du Zozaiak.

ENBORRA, EUSKARA HUTSEZ

Maiatzaren 25ean, Europako Parlamenturako hauteskunderak. Aurreko egunetako giroak gai horien inguruan hausnarketak egiteko aukera handirik eskainiko ez duenez, «European gainean dugun ezagutza eta hausnarketa gabezia ase nahiko genuke martxoaren amaieran eta apirilaren hasieran. Gainera, jardunaldien enborra euskara hutsezkora izateko apustua egin dugu, berritzaile eta dinamikoak izatea nahi dugun mahai-inguru biren bidez».

«Euskaraz egin nahi izan dugu, normalean horrelako gaien inguruan lehenengo gazteleraz egiten delako, eta gero, norbaiti okurritzen bazaio, euskaraz egiten du saio bat, baina ia inoiz ez dugu lehenengo erreferentzia euskaraz egiten», esplikatu digu

antolatzaileak. «Alde horretatik, ekarpentxoak egin nahi genuen. Hamaika telebistarekin elkarlanean ari gara, mahai-inguruen formatua egokitzen. Normalean, ponenteak sekulako txapa botatzeko joera izaten da, eta gero, mikrofonoa zabaldu eta eztabaida hasten denean, beti beren buruaz seguru dauden esku-hartzaileak egoten dira, asko dakitenak, eta horiek eztabaidan sartzen dira, baina gehien-goia ez. Askotan, debatea bospasei lagunen artekoa izaten da. Bestelako metodoren bat nahi genuen: lehen zatian, ponentziak azaltzeko hamabost-hogei minutuko ohiko formatu horri eutsiko diogu, baina gero, bigarren eta hirugarren zatietan, eztabaida telebistan egongo bagina bezala moderatuko dugu. Moderatzaileak funtzio garrantzitsua izango du, debatea dinamizatzeko eta ponentei arintasuna eskatzeko orduan. Zer edo zer erakargarriagoa bilatu nahi dugu, ikusleentzat dinamikoagoa izango den zerbait. Gaiak iritzi gehiagorekin osatzeko aukera ere zabaldu nahi dugu».

EUROPA, MUNDUAN

Unai Brea “Argia” astekariko kazetaria izango da gaurko mahai-inguruko moderatzailea. Bigarrenean, Hamaika telebistako



«Normalean, horrelako gaien inguruan lehenengo gaztelaraz egiten da. Gero, norbaiti okurritzen bazaio, euskaraz, baina ia inoiz ez dugu lehenengo erreferentzia euskaraz egiten»

«Lehen zatian, ponentziak azaltzeko 15-20 minutuko ohiko formatu horri eutsiko diogu. Gero, 2. eta 3. zatietan, eztabaida telebistan egongo bagina bezala moderatuko dugu»

Nagore Uriarte. «Europa, erronka?» jardunaldiak joan den ostegunean hasi ziren, Iñaki Gil de San Vicentek gaztelaniaz emandako hitzaldiarekin: «Europako lurralde esparruaren bilakaera, kapitalaren mesedetan».

«Europa munduko jokalekuan kokatu nahiko genuke; termino globaletan, inperialistetan», diote antolatzaileek. «Zer adierazi nahi duzue, Europa termino inperialistetan baino ezin dela ulertu?». Hona hemen Zozaiaren erantzuna: «Europari alde askotatik begiratu ahal zaio. Guk munduko eragile nagusien ikuspegi horretatik begiratzea aukeratu dugu, potentzia nagusi bezala aztertu, baina ez hori bakarrik, Europak kulturalki munduan izan duen rol hegemonikoa, kolonizatzailea... ere aztertu nahi dugu. Mundua, Txina, AEBak, Latinoamerika, Ekialdea, Ekialde Hurbila... Egungo saltsa horretan Europa zer den azaltzea da helburua. Hori litzateke lehen mahai-inguruaren ardatza».

Europar Batasunaren ibilbidea, Ekialdetik deika ari den aktualitatea eta aurrera begirako estrategia ekonomiko eta politikoa argitu nahiko lituzkete GITEko kideek. Horrekin batera, «Latinoamerikatik heltzen zaizkigun integrazio eredu berriak

aurrez aurre jarri nahi ditugu». Irakurleak askotan entzungo zuen egungo Europar Batasuna Estatuen Europa dela, ez herrien Europa. Eta egoera hori ez da aldatu azken urteotan. «Estatuen Europa esan duzu. Kontuan hartu behar da Europar Batasuna sortzeko motibazioa ekonomiatik etorri zela, bere jatorria Europako Ikatx eta Altxairuaren Erkidegoa izan zela. Jardunaldiak helburu formatiboa ere baduteenez, bide hori argiago ikustea nahiko genuke, bilakaera zein izan den azaldu eta nora doan aurreikusi», esan du Zozaiak.

MERKELEK BURUAN DUENA

Estrategia ekonomikoa eta politikoa argitzea oso helburu ambizioso da dirudi. «Oso konplexua da gaia, baina Troikak Europarako dituen planen inguruko hurbilpen bat egin daiteke. Zergatik ari dira Grezian, Italian, Portugalen, Irlandan... horrelako neurriak hartzen? Zer-nolako Europa marrazten ari dira? Non jarri nahi dute Europa? Zer dago

Merkelen eta beste agintarien buruetan?».

Latinoamerika ere aipatzen dute antolatzaileek prentsa-oharrean. Zergatik? «Abiatu ginenean, elementu honek protagonismo handiagoa zuen; bertatik norbait ekarri nahi genuen. Izan ere, Europaren bateratze prozesua logika ekonomikoak gidatzen du, eta badirudi herrialdeen arteko harremanak termino horretakoak bakarrik izan daitezkeela, horiek ezagutzen ditugulako. Aldiz, Latinoamerikan, beste integrazio eredu batzuk ari dira pisua hartzen: ALBA, Mercosur... Herrialdeen arteko harreman espazio ezberdinak dira horiek, Europan ez dauden espazioak; ez dira kapitalaren logikaren arabera integrazioak, baizik eta herrialde bakoitzaren burujabetzatik egiten direnak. Bestelako Europa bat diseinatzea ere posible dela azaldu nahi genuen Latinoamerikako integrazio ereduak aztertuta. Beste harreman ekonomiko batzuk garatzea posible dela, alegia».

Pantojaren interesa

Koldo Sagasti

Pantojaren kontzertua interes orokorreko ikuskizuna da

Gasteizen, halaxe erabaki baitu PPren udal gobernuak. 2011n udalak musu-truk utzi zion koblakari espainiarrari Mendizorrotza pabilioia. Kantariak, berriz, 40 eta 70 euro bitartean kobratu zituen sarrerako. Ederra negoziola! Baina se villarra ez da lehentasunezko tratua gozatu duen sasi-artista bakarra, azpi-kultura espainiarreko beste ordezkari bati ere, Melendiri, %75eko deskontua egin baitzioten Iradier Arena aretoko alokairuan. Adibideak ugariak dira. Udal gobernu eskuindarrak bere kordako titiriteroei eman ohi dizkie babesa eta diru-laguntzak hiritarren interesaren hobe beharrez ari direla argudiatuz. Bestalde, udal agintarien irizpide ideologikoetatik urrun daudenekin bestelako jokaera izan ohi dute. Martxoaren 3ko sarraskiaren 30. urtemugan «La revolta permanente» filma estreinatu zuten Pantojak musu-truk erabili zuen esparru bertsuan. Orduan pabilioiaren alokairu osoa ordaindu behar izan zuten, 2.000 euro. Itxuraz, gure herriko oroimen historikoa ez da interes orokorrekoa PPren irizpideen arabera. Pirritx eta Porrotzek ere, Euskal Herriko pailazo maitatuenean, 4.500 euroko alokairua ordaindu behar izan zuten leku berean bi emanaldi eskaintzeagatik, haurren heziketa ere ez omen delako herriaren interesekoa. Azken urteotan Gasteizko udalak muturreraino eraman ditu interes orokorreko kultura ikuskizunak zein diren ebazteko irizpide malguak. Euren esku izan da herriaren gustukoa zerk izan behar duen erabakitzea, eta euren korda ideologiko bufoiak hobetsi dituzte. Azken batean, milioika eulik kaka gustuko badute, kaka ona delako izango da. Horretan datza kolonialismo kulturala. Euren simaurra eman, ordainarazi, eta gure hobe beharrez ari direla diote. •





Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

Plaka bat Olarani

Diziplina ederra da toponimia. Geografiaren laguntzaile fina, lekuak hobeki ezagutzen laguntzen digu, eta informazioa ematen ingurune naturala, hizkuntza, erlijioa edota biztanleriaren bizimoduaren inguruan. Ingurune fisikoaren errelato bat osatzen du toponimiak, eta auke-ratu, asmatu eta eraiki egiten da, Historia bezalaxe. Belaunaldiz belaunaldiko haria, utzikariaren erreparazio-saiakera lotsagabea ere bilaka daiteke toponimia, luxuzko urbanizazioak hura egiteko eraitsi behar izan den baserriaren izena daramanean bezala.

Garaiak, baina, aldatzen doaz. Post-industrialismora egin dugu salto buruz behera, eta bestondoak beste biktima klase batzuk utzi dizkigu bidean.


Lepoan hartu eta segi aurrera, toponimiaren mesedetan: Contadores, Yoplañ, Rutilita, Lasa, Nerecan, Pescafria eta beste hainbat izen memoria kolektiboan iltzaturik daude; erreferentzia geografiko gisa erabiltzen ditugu, horietariko asko aspaldi desagertuak badira ere.

Donostiako Herrera auzoko adibideak dira arestikoak. Bertatik ez oso urrun, hiriak izena galtzen duen Altxako lurretan –izana, alta, lehenago galtzen baitu–, Molinao den gauza difuso horretan, toponimia berriaren adibide paradigmatico batekin egiten dugu topo: Luzuriaga. Luzuriaga da Pasai Antxo, Patricio Echeverria Legazpi den edo Sefanitro Barakaldo-ko Lutzana den modu berean. Eta bertan, toponimia ez dadin bilakatu utzikariaren erreparazio-saiakera lotsagabe, ekimen interesgarria abiatu dute: Luzuriaga Martxan.

Bulego-pabilioia da garai bateko Luzuriagatik zutik gelditzen den eraikin bakarra, bai eta inguruotako harribitxietatik bizirik irten den bakarrenetarikoa ere. Rikardo Olaranek 1943an diseinatu, estetika proto-arrazionalista du eta motibo klasikoekin dago apaindua. Eraikin ederra da, eta eraikin ederrekin maiz gertatzen den moduan –are maizago industrialak badira–, berandu egin zioten jaramon arkitektoek, eta are beranduago agintariek, inoiz egingo badiote. Auzotarrak eta Antxotarrok Historia Mintegia izan ziren eraikinari balioa ematen lehenak, eta ondoren etorri ziren UEUren Pasaiari buruzko mintegia, Metak Arkitektura Tailerraren aurreproiektua, eta orain, Luzuriaga Martxan ekimena. Gernikako Astra buruan, auzolanean ari dira eraikina txukuntzen, pixkanaka edukiz betetzeko asmoarekin; ondobidean, apirilean da hastekoa kultur programazioa.

Anekdotak bihurtzen den toponimiaren orde, esanahiz ari dira betetzen Luzuriaga. Erreferentzia geografikoa bezainbeste izan dadin erreferentzia kultural eta soziala, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko haria sendotuko duena.

Diziplina ederra dela toponimia. Geografiaren laguntzaile fina, lekuak hobeki ezagutzen laguntzen diguna. Eta Luzuriaga abizenak, toponimo bihurtua jada, Gipuzkoako bazter baten esentzia dakarkigu ezinbestean, auzotarrek –badaezpada, despistatuentzat– plaka batean zizelkatuko dutena: «Eraikin hau Rikardo Olaranek diseinatu eta jaso zuen, 1947an, eta antxotarrek, auzolan demokratikoan, txukundu eta birmoldatu egin zuten, 2014an, lanaren kultura erakusteko eta kulturaren lana garatzeko». •



ILUSTRAZIOA: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Gurea komedia ote?

Modako pelikulari esker, euskaldunok uste baino barregarriagoak garela irakurri eta entzun dut azken egunotan. Esaterako, euskal umorea andaluziarrena baino graziosoagoa dela idatzi berri du Espainiako egunkari salduenetakoaren kritiko batek. Hara hor irauli historikoa! Eta arrakastaren gako nagusia zera omen da: hamarkada luzetako gure gatazka honetaz ere barre egiteko gai garela orain, eta honek berebiziko grazia egiten omen du Espainia aldean, baita hemen ere.

Bide beretik, ETaren desakralizazioa gertatzen ari dela ondorioztatu du analistaren batek. Hala izango al da? Ez dakit bada... Duela hiru aste eskas, Berriozarko inauterietako karroza bateko lau gazteren kontra egin du Guardia Zibilak, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren aurrean salaketa jarritz, ETakide gisa jantzita omen zihoazelako. «Terrorismoa goratzea» egotzi nahi diete (hau bai umore berezia, umore beltza).

Iaz Altsasun gertatutakoa ere ekar genezake gogora: Ospa Eguna zela-eta, Borboi erregeaz, militarrez, guardia zibilez, falangistez eta foruzainez bete zen herria, giro jatorrean, baina aste batzuen bueltan, alkatetari Madrilen deklararazi zioten. Bitxikeria zera da: nola ez diren festa zapuztaile hauen aurka altxatzen euskal umore berriaren zaletu horiek guztiak!

Jenero berri honen emaitza ikusita –pagotxa!–, pelikularen hasiera baino ez omen dugu ikusi. Aurreratu dutenez, Jesus Eguigurenek Genevan eta Oslon ETako hainbat kiderekin izandako negoziazioak komedia gisa errodutzen hasi dira. Itxuraz, horren gidoilariari barregarri egin zitzaizkion Eguigurenen gorabeherak, segurtasun kontuak zirela-eta kreditu txartela ezin erabili eta bokatak eta kebabak jaten aritu behar izan zuelako. Nola ez, Josu Urrutikoetxea eta Xabier Lopez Peña ere irrigarri geratuko omen dira (damurik ez, ikusten denez, umoreak dena ahalbidetzen du-eta!)

Dudarik ez dut, zine-aretoak erraz beteko ditu filmak. Dagoeneko ikusi eta ikasi dugu, han eta hemen, askok eta askok ETaren armak betiko indargabetzen ikustea baino erakargarriago dutela pasarte honen

“Euskadi Movie”ren parodia. Zer egingo diogu? hone-la egina (edo desegina) dago gizakia. Onar dezagun, egun komedia egiteak ez du meritu handirik. Edo bai. Meritu ikaragarria izango luke, esaterako, Botswana-ko elefante-ehizaren inguruko komedia batek, ezta? Gidoia ez litzateke arazo, baina sosak...

Osasungarria da, oso, barre egitea. Osasungarriagoa, gainera, beste inorez baino norberaren buruaz barre egitea. Baina are osasungarriagoa da errealtatea ezagutaraztea.

Aukeran, guztiontzat aberasgarriagoa litzateke Oslon eta Genevan gertatu zena pantailaratzea, baten bat gertaera hori bihurrituz eta desitxuratuz aberastea baino. Baina bi eskuetako hatzak aski dira euskal gatazkaren berri ematen duten film aberasgarriak aurkitzeko. Ahalegin hori zein garesti ateratzen den jakin badakite “Barrura begiratzeko leihoak” edota

ETaren desakralizazioa gertatzen ari dela dio baten batek. Hala al da? Berriozarkoa eta Altsasukoa ikusita, ez dirudi. Eta onar dezagun, egun komediak ez du meritu handirik; izatekotan, Botswanakoak...

“Asier ETA biok”en egileek, bere garaian “La pelota vasca”renak bezala. Ikusteko dago Lasa eta Zabala- ren tragediaren filmak zer harrera izango duen.

Irlandarrei inbidia diet. Zinemak bere gatazka eza- gutarazten lagundu du eta, ondorioz, konpontzen: ge- rra zikina (“Ezkutuko agenda”), preso- en borroka (“Se- mearen izenean”, “Gosea”), polizia eta epaileen gehiegikeriak (“Aitaren izenean”, “Igande odoltsua”), IRAren sorrera (“Michael Collins”, “Garagarra astin- tzen duen haizea”), borroka armatuaren kontraesanak (“The boxer”, “Omagh”) eta abar. Hemen ez da antze- ko istoriorik falta. Aste honetan bertan, oraindik ere hunkitu egin gaitu Pasaia-ko sarraskiaren 30. urteu- rrenak. Pelikula ikaragarria gordetzen duela inork ez luke ukatuko, baina martxa honetan baten batek ko- media ez bilakatzearekin konformatu beharko? •

ENTZIKLOPEDIA IBILTARIAK

Gai batean aditu izatea pasioz bizi dutenak

 **GIZARTEA**
joxean.agirre@gaur8.info

Gai batean adituak asko dira. Unibertsitateak eta ikerketa lekuak beteta daude. Baina gutxiago dira arlo batean asko dakitelarik, komunikatzeko pasioa dutenak. Horiek txundituta uzten bagaituzte, ez da asko dakitelako bakarrik, daki-tena adierazteko duten erraztasunagatik baizik. Entziklopedia ibiltari modukoak dira eta beti daude irekita, beti daude emateko prest.

Oso talde gutxi geratuko ziren euskal rockaren edo poparen historian Elena Lopez Aguirrerren liburuetatik kanpo eta, horretara jarrita, talde bakoitzeko kideen atarramenduaz ere hitz egiteko gai da, hala eskatzen badiozu.

Galdetu Juanjo Olaizola Azpeitiko Trenbidearen Museoko zuzendari ohiari erortzeko zorian dagoen zure herriko tren geltokiaren historiari buruz eta berehala kontatuko dizkizu xehetasun guztiz jakingarriak.

Eskatu Xabier Usabiaga ETBko “Gaur egun”eko aurkezle, “Eztabaida” programaren gidari eta txirrindularitzan adituari une honetan korritzen ari diren edozein itzulitan azkena doan txirrindulariari buruzko zertzeladaren bat eta ziurtasun harrigarritz mintzatuko zaizu.

Joan zaitez Margarita Martin Aemetek Donostian duen arduradunarengana eta galdetu iezaiozu zu jaio zinen egunean zer eguraldi egin zuen eta aterako du arrastoren bat. Igogailuan denok hitz egiten dugu eguraldiari buruz auzokoarekin, beste gairik ez dugunean, baina emakume honek bezala oso gutxik.

Baina nola iritsi ziren jakituria hori pilatzera? Nola antolatzen du te informazioa? Zer jende mota etortzen zaie kontsultak egitera? Horiek eta beste hainbat galdera egin diezkiegu.



AGIRRE

MARGARITA MARTIN

«Umetan astronauta izan nahi nuen eta eguratsean geratu naiz»

Margarita Martin Aemet-ek Donostian duen egoitzako arduradun eta meteorologo ezagunaren bizitza ibiltaria izan da zinez. Andorran bizi zirela, ama doktore tesia irakurtzera joan zen Madrilera. Bere zuzendaria Zaragozako unibertsitatekoa zenez, harekin itzuli zen bueltan. Hiri horretan haur-minekin hasi eta bertan jaio zen alaba zaharrena, Margarita. Geroztik, batetik bestera ibili da. Zazpi ikastetxetan egin zituen ikasketak, 26 etxetan bizi izan da. Ama nafarra da, Kortesekoa, eta herrialde horretako populazioari buruz egin zuen hark bere doktore tesia.

Zergatik joan ziren zure gurasoak Andorrara?

Aitak oso gutxi irabazten zuen hemen, ez baitzegoen lanik ezkondu zirenean. Mila eta bostehun pezeta irabazten zituen hemen eta Andorran sei mila. Eta, gainera, familiakoak bisitatzera itzultzen ziren bakoitzean, etxeko tresnak ekartzen omen zituzten eta horiek salduz ere dirua ateratzen zuten. Irratiak, telebistak, kafe makinak... Aitonak hartzen zituen enkarguak eta aitak ekartzen zizkien gauza horiek auzokoei. Amak, gu izan eta gero, instituturako katedra ateratu zuen eta orduan hasi zen gure bizimodu ibiltaria, penintsulan barrena, behin-behineko destinoak ematen baitzizkioten. Hogeita sei etxe aldaketa egin ditut nik bizitzan. Aitak Zuzenbidea ikasi zuen, baina arrazoi politikoak medio, ez zuen inoiz katedrarik eskuratu eta irakasle soila izan zen. 50eko hamarkadan, ezer gutxi egin zitekeen unibertsitatean, onespén politikorik ezean.

Zer ikasketak egin zenituen?

Ni umea nintzela, gizona ilargira iristen ikusi nuen eta astronauta izatea erabaki nuen, baina beheraxeago geratu naiz, eguratsa aztertzen. Umetan, Vernerren lanak irakurtzen

nituelako edo, esploratzaile izan nahi nuela esan nion amari, baina honek planeta hau nahikoa esploratuta zegoela esan zidan eta ez nuen espaziora joatea beste biderik ikusten. Astronauta izateko ingeniari zena edo fisika ikasi behar zela esan zidaten eta horrela egin nituen Fisika Teorikoko ikasketak. Hamahiru urterekin hartu nuen erabakia. Madrilén hasi eta Bartzelonako Autonomoan bukatu nituen.

Nolatan Bartzelonan?

Ikasketak erdizka nituela ezkondu nintzen, 76an, 18 urterekin (adingabea nintzela, 21ean baitzegoen muga), soldaduska egitera Bartzelonara joan behar zuen mutil batekin. Nik Figuereseko akanpalekuan denda bat alokatu eta han eman nuen uda osoa, bera arratsaldero bisita egitera etortzen baitzitzaidan, lehen hiru hilabeteetan. Liman Frank-en “Hoz-eko magoa” liburua hortxe itzuli nuen ingelesetik, diru pixka bat ateratzeko. Arellano argitaletxeak ateratu zuen. 77ko udaz ari gara, urtetan egin duen udarik txarrenaz. Gauero, denda barrutik ura ateratu behar izaten nuen. Gero ere goizetan lan eginez ateratu nituen aurrera ikasketak.

Nola eman zenuen meteorologiarako jautzia?

Andorran ikasitako katalana erabat ahazturik nuen Bartzelonara joan nintzenerako. eta Kortasetik ezagutzen nuen Valtierako neska batekin egin nuen topo han. Hark esan zidan zein asignatura ematen zituzten gazteleraz eta horietako bat Airearen Fisika zen. Irakasleak azken urtea zuela, gazteleraz ematen zuela eta denok gaindituko genuela esan zidan. Eta asignatura hori ikasten hasi orduko, umetan astronautak ilargian ikusi nitueneko pasio bera sentitu nuen. Ikasketen azken urtean aurkitu nuen nire bidea. Urte horretan, 78an, sortu zen Meteorologi Institutua ere, aurrekoa,

meteorologi zerbitzua, militarren esku baitzegoen. Ikasketak bukatzen zituzten gehienak AEBetara joaten ziren ikertzen jarraitzera, baina nik neskato bat nuen ordurako eta oposizioak egin nituen. 23 urterekin gainditu nituen azterketak, baina ez nuen 84ra arte lanean hasterik izan. 83an Bilbon gertatu ziren uholdeen ondoren, zerbitzua berritzea erabaki zuten eta lanean hasi nintzen.

Noiz iritsi zinen Euskal Herrira?

Nire lehen destinoa Zaragoza izan zen. Hara iritsi eta ordenagailu bat zegoen han, estalkia kendu ere egin gabe, inork ez baitzekien ezer informatikaz. Ordenagailu horrekin hasi nintzen klimari buruzko datuak sartzen. Zaragozako behategiak Pirinioen zati handi bat hartzen du bere esku eta izotzei buruzko ikerketak egiten hasi nintzen, Aragoiko zenbait lekutan zeropetik 28 gradu egitera iristen baita. 1956ko jelaetan, -32 °C egitera iritsi omen zen eta termometroak apurtu zirela kontatzen zuten. Ni harrituta geratu eta ikertzen hasi nintzen. Egia esan behar bada, Aragoiko tarte termikoak ikusgarriak dira, erabat muturrekoak. Gure amaren herrian, Kortesen (Nafarroa bada ere, Zaragozako behategiak zeraman kontrola) -25 °C egiten zuen neguan eta 44 °C udan. Erriberako pertsona batek 70 gradu aldaketa termikoak jasan behar ditu. Hori izugarria da. Edozer gauza jasateko prestatuta daude bertakoak.

Zenbat urte egin zenituen Zaragozan?

Boladak eman nituen, beste arrazoi batzuen artean, aitona han etxe bat zuelako. Aitona Ebroko azukre fabrika bateko administraria izan zen. Fabrika horien historia ere bitxia da, Alemaniako judu

batzuk, sozialista utopikoak, Erriberara etorri ziren ihesi, XX. mende hasieran, bertan gizarte txiki eta aske bat sortzeko asmoarekin. Ekonomatoak, elizak, denetik zuten fabrika horien inguruan. Aitonak etxea ere bazuen, baina jubilatatu zenean, utzi egin behar izan zuen eta gurekin bizitzera etorri zen Zaragozara. “Ebro Compañía de Azúcares y Alcoholes” zen enpresaren izena eta Kortesen, Gallegon eta beste zenbait lekutan zituen eraikinak.

Noiz iritsi zinen Donostiara?

2002ko abuztuaren 25ean. Egun hori garrantzitsua da meteorologian, euri kopuru izugarriak eman zituelako. Hona iritsi eta izututa geratu nintzen hemengo etxeen alokairuekin. Oso garbi ikusi nuen nire soldatarekin ezingo nintzela hemen bizi, hiru seme-alaba nituelako nirekin. Donibane-Lohizunera joan nintzen bizitzera eta han jarraitzen dut. Mugaz gaineko pertsona naiz, baina mugaren bi aldeetan egin ditut adiskideak. Beste batzuek Hendaia edo Donibane-Lohizune lo egiteko bakarrik erabiltzen dute eta Irunen egiten dute bizimodua.

Zergatik dago hain modan meteorologia komunikabideetan?

Hasieran harritu egiten nintzen telebistetan ematen dituzten hoge minutuko emanaldi horiekin. Neu ere aspertu egiten naute. Baina berehala ohartu nintzen kalekume batek izadiarekin duen harreman bakarra dela eguraldiarena. Ni neu herritik kanpo bizi naiz, baratzea eta guzti, baina jendea espazio oso artifizialetan bizi denez, behar du harreman hori izadiarekin, birtuala besterik ez bada ere. Meteorologia izadiarekin lotzen dituen zilbor-hestea da. Herri txikietan bizi den jendeak ez ditu telebistako emanaldi luze horiek ikusten.



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

XABIER USABIAGA

«Ni txirrindularitzaren datu-basea egiten hasi nintzenean, ez zegoen ezer»

Bihotzeko patologia txiki batek behartu zuen 24 urte zituela txirrindularitza profesionala utzi, entrenatzaile ikasketak egin eta komunikabideetan lanean hastera. Informatika ikastaro batean ezagutu zuen aplikazio bati esker hasi zen txirrindularitzaren datu-basea lantzen, artean inon egiten ez zenean. Aitzindari izan zen arlo horretan. Xabier Usabiagaren haurtzaroan badira, dena den, txirrindularitzara bideratu zuten bizpahiru gertakari: aitarekin lan egiten zuen auzokide bat, Jesus Mari Larrarte, ziklo-krosean ibiltzen zen eta hura ikusita sartu zitzaion txirrindularitzarako grina, hamar-hamaika bat urterekin. Baina ordurako, errepideko bizikleta txiki batekin Andazarratera igota zegoen. «Etxean bagenuen osaba mutilzahar bat, osaba Paulo, gurasoek erosten ez

zizkiguten gauzak erosten zizkiguna eta, sei urte nituela, karrerako bizikleta txiki bat oparitu zidan, Matxain dendan erosia, hiru pinoikoa. Asteasu herri apustularia da eta edonork galdetzen zidan ‘igoko al haiz Andazarratera hanka lurrera bota gabe?’ eta igo nuen, Emporium markako bizikleta gorri harekin. Orduan ez zegoen gaurko trafikorik. Aitak, dena den, eskuinetik joateko agintzen zigun eta oso umeak izango ginen, galdetzen baitzigun ‘zein da eskuina?’ badaezpada». Adin horretan bertan, beste osaba batek, osaba Juan Kruzek, kulotea eta Bic taldeko elastikoa oparitu zizkion. «Anquetilen taldea zen hori eta gerora jakin nuen Jose Migel Etxabarri ere talde horretan ibili zela», gogoratu du Usabiagak. Bic-eko elastikoa jantzita, ez da harritzekoa Xabier Usabiaga mutikoa amets egiten hasi eta 13 urterekin

Villabonako Txirrindulari Eskolan izena eman izana. **Villabonako eskolan ikasi izanak zer esan nahi du, aro berriko txirrindularia izan zarela?** Eskolan hasi eta bizpahiru urtera, Euskadiko Federazioa sortu eta horrek ekarri zuen berrikuntza. Jaime Ugartek sortu zuen eta lana fundamentu handiz egin zuen. Euskadiko Selektzioa sortu zuen ondoren eta kontzentrazioak eta atzerrirako irtenaldiak egiten hasi ginen. Kontzentrazio horietan, Anton Gorrotxategi, Eduardo Escobar eta garai hartan Hezkuntza Fisikoa egindako beste zenbait formazio teorikoa ematen hasi ziren. Errendimenduari zerikusia zuten alderdiak lantzen hasi ziren, horrek sekulako ikusmina piztu zidan eta entrenamenduak ikuspegi berri batekin egiten hasi nintzen. Hamasei bat urte nituenerako, txirrindularitzaren ikuspegi berriarekin ari nintzen lanean, institutuan batxilergoa egiten ari nintzen bitartean.

Oso gainetik eman beharko diogu begirada gazteen mailan egin zenuen ibilbideari. Ondo ibili nintzela esatea nahikoa da, beste hainbat kide ibili zen moduan. Afizionatutan lau urte eman eta gero egin nuen profesionaletara jauzia. Nik 18 urte nituela, aita hil egin zen eta hori mugarri bat izan da nire

bizitzan. Bost anai-arrebetan zaharra nintzen eta ikasten jarraitzeko aukera utzi eta txirrindularitzan buru-belarri sartzea erabaki nuen, nahiz eta inolako ziurtasunik ez izan. Kaikuko arduradunek soldata txiki bat agindu zidaten, profesionaletan bukatzeko aukera handiak nituela esan zidaten eta talderen bat nigatik galdezka ibili zela ere esan zidaten. Hemezortzi urterekin, apustu hori egin nuen eta 22 urterekin pasatu nintzen profesionaletara. Ordurako, txapel batzuk banituen, itzuli batzuk irabazita ere bai eta talde on batekin fitxatu nuen, baldintza onetan. Clas Cajastur taldean, bi urte eman nituen. Rominger, Etxabe eta Gaston zebiltzan taldean, esate baterako. Bi urte horietan, ez nintzen ibili teorian ibili behar nuen mailan. Taldea desegin egin zen eta Euskaltepera pasatu nintzen. Korritzen hasi aurretik, entrenatzen nenbilela bihotzeko arazo bat aurkitu zidaten. Madrilen hilabete eman ondoren, ezin nuela jarraitu esan zidaten, intentsitate handian lan eginez gero, takikardia txiki batzuk sortzen zitzaizkidalako. Zortzi ordu kirolfanoan igaro eta ezin izan zuten antzeman nondik zetorkidan arazoa, ez baita bihotzeko giharren arazoa, nerbio batena baizik. Konpondu zuten, baina takikardia oso laburrak zirenez, ez zuten iturria aurkitzerik lortu. Geroztik bizimodu normala eraman dut, kirola ere egiten dut, baina taupada kopuruaren muga jakin bat igaro gabe.

Bizitzarako zenituen asmoak erabat aldatzea ekarriko zuen horrek. Nire ametsa lortu eta bidea egiten hastera nindoanean gertatu zen hori. Ez nuen erabakitzeko denbora askorik izan. Otsaila Madrilen eman nuen ospitalean, martxoa nora ezean igaro nuen, baina apirilean Tito Irazustak deitu zidan Herri Irratitik, Euskal Herriko Itzulia beraiekin egingo al nuen galdezka. Orduantxe jarri ziren modan komentaristak edo iritzi-

emailak. Egia da Euskadi Irratian aurretik, afizionatua nintzela, Espainiako Itzuliko etapa batzuk komentatzera eramaten nindutela eta Herri Irratian ere kolaboratu izan nuela.

Horrek esan nahi du komunikatzeko gaitasuna lehendik bazenuela. Ez nintzen konturatzen, ez nintzen jakitun. Gerora ohartu naiz horretaz. Herri Irratian gazteleraz eta Euskadi Irratian euskaraz egiten nuen eta bietan moldatzen nintzen. Niretzat ezustekoa izan zen Herri Irratiarekin Euskal Herriko Itzulia amaitu eta hainbat eskaintza jasotzea, Herri Irratiaren beraren eta Radio País Vasco-ko Manolo Fraileren aldetik, baita Euskadi Irratiaren aldetik ere. Hiru eskaintza izan nituen eta, euskaraz nahiago nuelako, Euskadi Irratia aukeratu nuen. Aldi berean, entrenatzaile eta zuzendari tituluak atera nituen, Madrilen. Informatikako ikastaro bat egiten ari nintzela, datu-base bat egiteko oso erabilgarria izan zitekeen aplikazio bat ezagutu nuen. Nik betidanik nuen ohitura ziklisten emaitzak jarraitzeko eta buruan datu asko nituen, baina ez komunikabide batean lan egiteak eskatzen zuen zorrotzasunarekin erabiltzeko adina. Orduan, Internet ere ez zegoen edo ez zegoen zabaldua. 95eko kontuak dira hauek. Nire kabuz hasi nintzen, aplikazio hori baliatuz, ziklista bakoitzaren datuak sartzen. Programak datuak gurutzatzeko aukerak ere ematen ditu. Komentaristak emaitza asko izaten ditu buruan, baina askotan usteko kontuekin jardun behar izaten du. Programa honek kontsultak egiteko bideak errazten ditu. Aplikazio berarekin jarraitu dut ondoko urteetan, egokitzen ari nintzen. Une batean, ETBk nire datu-base hori ikusi zuen eta Tourrari jarraipena egiteko antzeko bat eratu zuen.

Aitzindaria izan zinen, beraz, datu-basearen erabileran. Garai hartan ez zegoen txirrindularitzari buruzko datu-baserik. Gerora, noski, azken

«1995ean, nire kabuz hasi nintzen aplikazio horrekin ziklista bakoitzaren datuak sartzen. Komentaristak emaitza asko izaten ditu buruan, baina askotan usteko kontuekin jardun behar izaten du. Programa honek kontsultak egiteko bideak errazten ditu»

hamar urteotan, multinazionalak ere ekarri dituzte antzeko aplikazioak eta zabaldu egin dira, baina ni hasi nintzenean ez zegoen ezer, horretan seguru nago. Nire informatikako irakaslea ere saiatu zen Interneten bila eta ez zuen ezer topatu. Orain gutxi, ETBk berak bere web orrian jarri du nire datu-basea.

Zer informazio eskaintzen du datu-baseak? Ziklista bakoitzaren fitxategia dago eta karrera bakoitzeko emaitzak. Ordenagailuari galdetzen diozu ziklista jakin bat lehen hamarren artean zenbat aldiz geratu zen eta erantzuna emango dizu, adibide bat jartzearen.

Zer iturri erabili zenituen datu-basea egiten hasteko? Ez zegoen ezertxo ere informatizaturik. Belgikan, txirrindularitzaren inguruko urtekari famatu bat ateratzen zuen kazetari batek. Nik urtekari horietako bat ikusi nuen eta, egun batean, autoa hartuta bertara joatea erabaki nuen. Banekien kazetari hori nongoa zen eta jendeari galdetuz bere etxera iritsi nintzen. Txirrindulari profesionala izan berria nintzen, urtekari


horietan agertzen nintzen eta horrek erraztu zizkidan gauzak. Hamabost bat liburu erosi eta horien hustuketa egin nuen. Dena den, karrera baten komentarioak egiten ari naizenean, memoriak funtzionatzen du gehienbat: karrera asko ikusten ditut, txirrindularitzaz asko irakurtzen dut eta hori da bat-batekoan gehien erabiltzen dudana. Ordenagailuak zehaztasuna ematen dit, baina ezin dut bat-batekoan pantaila bati begira hitz egin.

Biharamuneko etapa baten aurreikuspenak egiten hasi eta ziurtasun handiarekin hitz egiten duzu askotan. Hain erraza al da zer gertatuko den asmatzea? Ez da erraza, baina begira, etapa gogorra bada, zaila da hogeiz ziklista baino gehiago protagonista izatea. Tropeleko ziklista bakoitzaren asmoak eta ahalmenak ezagutuz gero, eta une horretan maila eta ibilbidearen ezaugarriak kontuan izanda, ez da hain zaila gutxi gorabehera protagonista zein izango diren asmatzea. Ustekabekoak txirrindulari gazteek ematen dituzte. Gaur, ziklistei buruzko informazio asko dugu eta karrerak norbere begiz ikustea hori bezain garrantzitsua da. Guri eskatzen zaiguna ez da, gainera, beti asmatzea, iritzi propio eta sendoak izatea baizik.

Gaur, EITBn zer eginkizun dituzu? Eguerdiko albistegia aurkeztea eta asteburuetan telebistak ematen dituen karrerak komentatzea dira nire lan nagusiak. Baina egunero jarraitzen dut txirrindularitza, onerako edo txarrerako hau pasioa delako eta ezingo nukeelako utzi. Ez nuke hau esan beharko, baina eguna honetan ematen dut, albistegia baino gertuagotik jarraitzen dut txirrindularitza. Nire pasioa txirrindularitza da, baina komunikabideetako erronkak gustatzen zaizkit eta ostegunetan eztabaida saio bat gidatzen ari naiz orain.

A maren gaixotasuna eta heriotza tartean zirela elkarriketatu behar izan dugu Elena Lopez Aguirre, Potato taldeko gitarra-jotzaile izana eta euskal rockaren inguruan lauzpabost liburu argitaratutakoa. Amaren familia euskal jatorrikoa du. Birraitona Madrilera joan zen lanera eta Toledo kalean burdindegia bat ireki zuen. «Arrasateko sarrailagile famatuen oinordekoa zen», dio Elenak. Aitaren aldetik Andaluzia eta Gaztelako jatorria du. «Ama egunotan hil zaigu. Umetatik, musika maitatzen erakutsi zigun. Zortzi anai-arreba gara eta Gabon gauean familian egiten genituen kantaldiak ez ditut inoiz ahaztuko», esan du.

Noiz etorri zinen Euskal Herria? 1980an etorri nintzen Gasteizera, Pedro Espinosa nire bikotekide eta gidariari jarraituz. Biok Informazio Zientzietan lizentziatu ginen. Titulu hori izen luzekoa bezain etorkizun laburrekoa zen orduan ere. Pedrok eta biok oso tandem sortzailea osatu dugu, baina oso beroak gara eta haserretzeraino eztabaidatu ohi dugu. Musika izan zen gure lotura nagusia, baina guretzat musika ez zen artea bakarrik, mundua narratzeko bitarteko ere bazen, kazetaritza egiteko esparru bat, jende berezia ezagutzeko aukera bat. Gauza handiak egiteko gai zen jendea ezagutu genuen: artistak, sortzaileak, ideologoak. Gasteizera iritsi eta giro horretan murgiltzeko aukera izan nuen: margolan borobilak egiten zituzten margolariak, komikigile jatorrak, Frank Zapparekin maitemindutako kazetariak, euskara irakasleak, aktore independenteak, idazle postmodernoak, kontzejal parrandazaleak, heroinarekin kezkatuta zebiltzan sendagileak, zinema zuzendari rockeroak, amildegiaren ertzean bizi ziren jonkiak, ideia oso onak zituzten





Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

langabetuak ezagutu genituen eta horien berri ematen saiatu ginen ‘Bat, bi. Hiru’ izeneko “Egin” egunkariko gehigarrian. Pablo Cabeza zen gehigarriaren burua, euskal rockak izan duen kronistik onena eta saiatuena. Egun batean, Pedro ideia berri batekin etorri zen eta Potato taldea sortu genuen.

Zer izan zen Potato zuretzat?

Giroa behetik begiratu eta kontatu ordez, agertokira igo eta kontatzea. Pedrok taldea mezuak helarazteko erabili nahi zuen, lokarturik zegoen jendea esnatzeko, kontzientziak pizteko. Oso tipo ausarta da eta bere kontrapuntua aurkitu zuen, Juantxo Boriko. Juantxo zerbait handia egiteko jaio zen, baina giroak ez zion lagundu. Dena den, kanta izugarri batzuk utzi zituen: “Babilonia” edo “Rub-a-dub reggae”, esaterako. Saharako hegoaldetik etorritako baten ahotza zen eta agertokiko argigunetik hitz egiten zigun. Hori zen gure katarsi lekua, gure

leku sakratua, hortik ateratzen genuen ekintzarako indarra eta adorea. Potatoko urteak gazi-goza izan ziren niretzat. Urte gehiegi nituen ordurako, bost urteko ume bat nuen. Porru gutxiago erre beharko nituen, baina zer arrai! Nire ekarpena egin nion taldeari, moldaketak egin nizkion, esate baterako, “La clase obrera” kantari, nire kanta kutun bat aipatzearren. Nik profesionala izan nahi nuen, saiatu ginen eta lortu genuen aldi batez musikatik bizitzea, baina sekulako indarrak xahutu behar izan genituen. 1988an, Potato utzi nuenean, “Bat, bi. Hiru”n zentratu nintzen buru-belarri. Gero, “Egin”eko “Arabian zehar” orrialdean aritu nintzen.

Garai horretan hasi zinen euskal rockaren historia landu eta liburuak argitaratzen.

“Hertzainak: la confesión radical” izan zen lehena. Liburu horrekin estreinatu genuen Aianai argitaletxea. Pedroken ideia izan zen hori ere eta nik

ELENA LOPEZ AGIRRE

«Potato taldeak urte batzuekin harrapatu ninduen, bost urteko ume bat nuen»

atzetik jarraitu nion. Niri beti atzelari gisa jokatzeari egokitu zait, baina ez dit axola, zortzi senidetatik seigarrena naiz eta ohituta nago. Inoiz ez naiz lehen lerroan jartzen, baina horrek ez du esan nahi ez naizenik buru-belarri sartzen. Gu Hertzainak taldearen jarraitzaileitsuak izan ginen eta taldeari buruzko liburu bat idaztea kazetaritzaren eta musikaren arteko uztarketa hori muturreraino eramateko modu bat izan zen.

«Del txistu a la telecaster. Crónica del rock vasco» izan zen zure bigarren liburua.

Oso lan pertsonala izan zen eta harro nago, hutsune asko dituen historia bada ere. Ondoren, 1998an, “Potato reggae banda: la utopía de una Euskadi Tropical” kaleratu zen. Ez zuen oihartzun handirik izan. Gozatu eta sufritu egin nuen idazten, istorio txar eta on asko gogoratu behar izan bainituen. Garai horretan, eleberri historiko bat ere idatzi nuen, Mendebaldeko Saharari buruzkoa, 8 urtetik 17ra bitartean han bizitakoa bainaiz. Eta segidan, “Edozein herriko jaixetan” idatzi nuen, euskal rockaren historiari buruzko lan mardula. Heldutasun kutsu handiagoko lana da, pixka bat hantustekoa; kontu argitze bat ere bada. Ondo pasatu nuen gaia ikertu, datuak bilatu, materiala sailkatu eta txukuntzen. Aurkezpenak egiten oso gaizki pasatu nuen eta kultur ekitaldi horietan ateratako dirua Aianai Kultur Elkartearen sartzu nuen. 2006an, Juan Borikó hil zen eta geroztik

elkarte honek Johnny Bruskoren Memoriala egiten du. Bertako reggaea bultzatzea da gure helburua eta, bidenabar, 80ko lagun taldea biltzeko baliatzen dugu, baita ondorengo belaunaldiak elkartzeko ere, gu aitona-amona bihurturik baikaude eta esaldia modu hertsian ulertu behar da.

Zuen seme-alabak musikazaleak atera al dira?

Gure bi alabak musikazaleak dira. Mariak etxetik alde egin zuenean, “40 principales”en soinua faltan botatzen hasi nintzen, goizean jaiki eta ateratzen zen arte irratsaio hori piztuta izaten baitzuen. Dantza gustatzen zaio, larunbatero egin du dantza, diskoteka eta tabernetan. La Oreja de Van Gogh eta Alex Ubago berarekin entzun ditut. Sarak kontserbatorioan egin ditu

«Potatori esker, giroa behetik begiratu eta kontatu ordez, agertokira igo eta handik kontatzen hasi nintzen»

ikasketak eta musikarako dohain izugarriak ditu. Egunez eta gauez entzuten du musika. Berarekin, Gatibu entzun izan dut, “Zoramena zara” bolumena toperaino igota entzuten genuen autoan.

Azken 30 urteotan, rock edo berbena talderen bat geratuko al zen zure liburuetatik kanpo?

Bai, seguru eta horrek min ematen dit. Urte gutxi barru, azken liburuaren edizio digital bat egitea gustatuko litzaidake, hutsune horiek betetzen joateko. Ez nuke esango euskal rockaren historia denik, hori baino zabalagoa baita hartzen duen esparrua. Eta liburutik kanpo gauza asko geratu dira. Oraindik gogoan dut zer pena sentitu nuen Osesek esan zidanean: “Elena, alboka ez duzu aipatu ere egin”. Garai hartan, ez zitzaidan alboka gustatzen eta ahaztu egingo nuen. Tito Aldamaren omenez hilerriera joan eta alboka entzun nuenean hasi nintzen instrumentu hori baloratzen.

Posible al da horrelako lan erraldoi bat pasiorik gabe egitea?

Gaia pasioarekin bizi ez badugu, zaila izango da horrelako lan bat egitea.

Nola antolatzen duzu dokumentazioa? Arxibo horiek oraindik gordeta al dituzu?

Dokumentazioa paperean eta ordenagailuko karpitetan gordetzen da, leku seguruetan badaezpada, kanpoko disko gogorretan eta pen drive-etan. Edozein modutan ere, “Edozein herriko jaixetan” liburuan ez dago informazio eskusiborik. Ez nuen elkarriketak egiten hasi nahi izan, hala egin izan banu, liburuaren orri kopurua hirukoiztu egin beharko bainuen. Taldeak, izenak, datak sistematizatzea da liburuaren helburua eta informazioaren zati handi bat sarean dago. Nik ordenatu egin nuen.

Ez al zara memoriaz fidatzen?

Nire memoria ez da fidatzekoa. Horregatik, idatzi egin behar izaten dut.

JUANJO OLAIZOLA

«18 urterekin, piper egiten nuen, Donostiako tranbia konpainiaren artxibora joateko»

1965ean jaio zen eta, umea zela, aita Logroñora joan zen lanera eta geltokiaren pare-parean jarri ziren bizitzen. Hamaika urte bete arte bizi izan ziren han. Euskal Herriko tren guztiak argindarrarekin bazebiltzan ere, Logroñoakoak lurrunezkoak ziren eta Juanjo umeari sekulako inpresioa egiten zioten. «Berandura arte ibili ziren martxan lurrunezko trenak. Renfek tren horientarako biltegi bat zuen Nafarroan, Kastejonen, eta 1975eko apirilaren 1ean itxi zuten», dio, urtearen berri emateaz gainera egun zehatza ematea gustatzen baitzaio. «Tren horiek Kastejondik Mirandarainoko bidea egiten zuten eta Logroñotik igarotzen ziren. Umearen begietatik begiratuta, lurruna botatzen duten metalezko munstro horiek ikusgarriak dira». Hogeita bi urte zituela, 1989an, euskal tren eta trenbideen katalogazioa egiteko eskatu zion Eusko Jaurlaritzak. Handik urte gutxira hasi zen Azpeitiko Trenbidearen Museoaren proiektua bultzatzen eta 1994an zabaldu zuten erakustoki hori. Bertako zuzendari izan zen, 2012an kargutik kendu zuten arte. Erabakiaren aurkako protestak egin zituzten eta epaitegiek arrazoi eman diote. Lanera itzuli zen, baina kargua berreskuratzeko aukera oraindik epaileen esku dago.

Trenarekiko lilura horrek markatu zintuen.

BBB egiten ari nintzela, 18 urterekin, piper egiten nuen, Donostiako Tranbia Konpainiaren artxibora

ikertzera joateko. Hain zuzen ere, nire doktorego tesia Donostiako tranbiei buruz egin nuen eta gaztetan bildutako informazio zenbait nire lanerako erabili nituen.

Museoan jendea zuri aho zabalik entzuten ikusi izan dut. Nola lortzen da jendearen jakin-mina piztea?

Gaiari buruz jakitea oso garrantzitsua da jendearen jakin-mina pizteko, baina hori bezain garrantzitsua da gaiarekiko pasioa, egiten dugun horretan bihotza jartzea. Gai bati buruz asko badakigu, proselitismoa egiteko joera izaten dugu. Hori gertatzen da futbol zaleekin ere. Nire kasuan, gainera, ez da historia kontatzea bakarrik, uste baitut trenak garraiobide bezala etorkizun handia duela, ez dela museoan gorde beharreko bitarteko hutsa. Abantaila handiak ditu eta defendatu egin behar dudala iruditzen zait.

Zuk trenaren historiaz berrogei bat lan argitaratu dituzu. Non daukazu horiek egiteko erabili duzun dokumentazioa?

Museoan bertan. Etxean liburuak izan ditzaket, baina dokumentazioa museoan gordetzen dut. Donostiako Tranbiari buruzko tesia egin nuenean, dokumentazioaren zati bat zaborretatik berreskuratu nuen. Horiek etxean gorde nituen, baina museoa martxan jarri orduko, hara eraman nituen. Interesa duten guztien esku egoteko leku egoki bakarra museoa da.



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

Zer-nolako kontsultak iristen zaizkizu? Zer-nolako jendeak jotzen du zuregana?

Norbanakoak eta elkarteak izaten dira informazio bila datozenak. Beren herritik igarotzen zen trenari buruzko datuak nahi dituzte edo norbaiten aitona trenbideetako langilea izan zela-eta aztarnaren bat nahi dute edo herrian geltokia zutik dute oraindik eta hura jaso zuen arkitektoaren berri izan nahi dute. Eta gero, trena maite duen jendea dago. Bilbon, Donostian, Irunen elkarteak daude, Azpeitian Museoaren inguruan badago beste bat, baita Iparraldean ere. Ez gara asko, baina elkar ezagutzen dugu eta mugitzen gara.

Zein da Euskal Herriko trenik zaharrena?

1855ean Baionara iritsi zen trena. Hori da Euskal Herriko lehena. Ondoren, Renfeko Madril-Irun eta Bilbo-Tutera etorri ziren, baina 1882an hasi zen, Bizkaian, gaur Eusko Tren gisa ezagutzen dugun bide estuko trenbidea.

Zer iritzi duzu abiadura handiko trenari buruz?

Gai konplexua da. Trenaren etorkizuna ez dago abiadura handian bakarrik, baina ezinbestekoa da trenbide sare berri bat eraikitzea, bide luzeak egiteko eta Europara zama

«Gaiari buruz jakitea garrantzitsua da jendearen jakin-mina pizteko, baina hori bezain garrantzitsua da gaiarekiko pasioa»

eramateko balioko duena. Trenaren autopista horiek egiteak ez du esan nahi bidaia laburrak egiteko tren konbentzionalak baztertu behar direnik. Horren adibide dira Bilboko Metroa, Gasteizko Tranbia edo Donostia aldeko Topoa. Baina bide luzeak ezin ditugu 60 kilometroko abiadurarekin egin, sare berri bat eraiki behar da. Trenak etorkizunik ez zuen hamarkada batean hasi nintzen lanean, 80ko hamarkadan. Hogeitaz urtean, tranbiak hirietara itzuli dira eta tren azpiegitura berriak eraikitzen ari gara.

Jarraitzen duzu Azpeititik Lasaora lurrun makina gidatzen?

Aste Santutan hasiko naiz berriro.

Bertako trenak interesatzen zaizkizu batez ere?

Nik Euskal Herriko trenak aztertu ditut gehienbat, baina Estatu espainiarrekoen historia ere ezagutzen dut, neurri batean lotuta daudelako. Gainera, beste aldi batez Valentzian ere bizi izan ginen eta neure herri gisa sentitzen dut hura ere.

Trena askotan erabiliko zenuen bidaiatzeko orduan.

Asko gustatzen zait trenean ibiltzea. Madrileria egunean bertan joan-etorria egiteko ere trena hartu ohi dut, Iruñera trenean joan ondoren. Oporretan ere, Portugal, Italia, Frantzia, Suitza edo Alemania zeharkatzeko, trena erabili ohi dut. Transiberianoan ez naiz ibili, baina ez da gogo faltagatik, poltsikoak ez didalako ematen baizik. Behin, emaztearekin Kanariar Uharteetara joan nintzen eta abstinentzia sindromearekin egon nintzen.

Tren bat bereziki kutuna egiten zaizuna?

Asko ditut kutunak, baina bat aipatzekotan, Erroblakoa aipatuko nuke. Europako bide estuko tren luzeena da, zoragarria. Paisaia aldetik, Bizkaiko industrigune nagusia eta Palentzia eta Leongo lautada eta mendiak zeharkatzen ditu.

POSTMODERNO XELEBREAK

Artista gazteen gorabeherak

~~URTAR~~ OAK



Negarra

Amaia Agirre

Ohituta nago alaba negarrez ikus-
tera. Haserrea eta mina adierazte-
ko duen modu bakarra da, baita
ezinegona jasangaitz zaionean
ere. Nola lasaitu asmatzeak ni ere lasaitu
egiten nau. «Zer ote du?» galdera erretori-
koari erantzuna jartzea atsegin dut.

Nire negar hotsak ere ez nau gehiegi
kezkatzen, nire malkoen erreka ez baita
inoiz itsasoratuko. Ia ziurtasun osoz esan
dezaket ez dela inoiz laku iraunkor eta es-
tatiko bihurtuko. Nire izatearen aro alda-
keta bezala bizi ditut nire negar saioak eta
nire intziriak. Hutsik sentitzen naizenean
edo hutsen bat egin dudanean barrua hus-
teko estrategia baino ez dira. Kontraesane-
an eta autodestrukzioan oinarritutako

madarikazioen ondorio. Nik nire buruari
eragindako minak, ordea, ez nau egunero-
kotasunean mintzen nauten ikuskizunek
baino gehiago larritzen. Biharamunean
irribarrez oroitzeko gai naizen negarral-
diak baino ez dira nireak, zorionez. Bai
orain bai gero izatea da sosegu gabeko
hustu beharra. Eta hori ez da huskeria.
Hustasuna baizik. Eta horrek asaldatzen
nau, baina ez aldarte etenkariek. Ni, egia
esan behar badut, etenik gabeko negarrek
kezkatzen naute.

Ohituta nago nire ondorengoaren begie-
tan malkoak ikustera, baina ez nire aurre-
koen begi gorrituak ikustera. Oso gutxitan
izan dut gurasoak negarrez ikusteko zoria,
baina eurek uste baino gehiagotan antze-

man diet horretan aritu direla. Ezkutuan
egin dutena begi haziak agerian utzi izan
dute, eta bistakoa da niri ere begiak bete
eta bihotza lehertu zaizkidala. Gorroto dut
«zer gertatzen da?» galderari «ezer ez»
erantzuten dioten unea. Jakinaren aurrean
ezjakin bezala tratatzeak amorrarazi egi-
ten nau. Nik eurei esaten nizkien gezurrek
baino min handiagoa eragiten didatela
iruditzen zait. Ez dut harrizko bihotza eta
hondarrezko kontzientzia izateko gaitasu-
nik. Zeharkatu ezinezko murruean aurrean
mutu geratzen naiz. Maukarik gabeko soi-
nekoa bezain besamotz, eta silaba gutxiegi
dituen puntua bezain eskas. Minari beldur
diot eta beldurak mina eragiten dit, baina
zer pasatzen da? Ezer ez. Pasatuko da. •



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS



IKUSMIRA

KOLORETAKO MUNDUA?

Koloretako mundua. Ez zirudien proposamen txarra. Denak kabitzeko modukoa, desberdintasunak aberastasun modura ikusteko abildadea duen jendartea, barre egiteko arrazoiak topatzeko gaitasuna duena, baina era berean, negar egiten badakiena. Ez da berdina negar egiteko moduko mundua edo negar egiten dakien mundua, ezta?

Kasik sinetsita geunden bazela moduren bat mundua desberdin pintatzeko, ez azalez atseginago ager dadin

bakarrrik, baita mami desberdina izan dezan ere. Bai, proposamen ona zirudien. Baina orain dena da zalantza. Hainbeste uniforme, txapeloker, trikornio, papar gaineko domina distiratsu, berde, gorri, urdin...

Koloretako mundua ez da izango kolore desberdineko, kolore guztietako poliziak dituen mundua, ezta? Izan ere, gure kaleetan dabiltzan polizien uniforme koloreei begiratuta... Ai, ai, ai... ea oker genbiltzan... amagoia.muji-ka@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

Europako ekoizpen ekologikoko araudia estutzeko asmoak sektorea dantzari jarri du berriz ere



Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

Sektore dinamikoa da laborantza ekologikoa. Errealitate berri eta konplexuen aurrean doitu behar izatearen poderioz, etengabe paradigma berriak proposatzen dituena. Jatorrian, duela mende erdi baino gehiago, mundu osoan ezarritako ekoizpen-eredu “modernoren” kontrakoa balitz bezala jaio zen: hark gai kimikoen (ongarrien, pozoien) erabilera intentsiboa proposatzen zuen, errendimenduak handitzeko; honek, naturaren aurka baino, naturarekin bat ekoiztea, naturaren mugak onartuz. Igarotako epean, nekazaritza intentsiboaren erruz ekosistemen eta gizakion osasunean sortutako arazoez erakutsi dute negozio eskasa dela elikagaien ekoizpenean gai kimikoak neurrigabe erabiltzea.

80ko hamarkadaren hasieran, “freaky” bakan batzuk ziren ekoizpen eta kontsumo eredu hau aldarrikatu eta praktikatzeko zutenak. Hamar urte geroago, hasierako bizpahiru “iluminatuak” ikusgaitasuna zeukan gutxiengo bilakatuak ziren. Sektoreak kontuan hartzeko moduko bolumen ekonomikoa lortu zuela ikusita, Europar Batasunak (EB) ekoizpen ekologikoa baldintzak ezarri zituen, 1992an, Europako Ekoizpen Ekologikoari buruzko lehenengo Araudiaren eta ekintza planen bidez. Sasoi hartan, beste gertakari batek etorkizunean ekoizpen eta kontsumo ekologikoen izan zezaketen garapenearen zantzuak eman zituen: “Bio-en gatazka”-k. Ekologikotasunak, eta honekin lotzen den osasungarri-

tasunak kontsumitzailearengan izan dezakeen eraginaren jakitun, elikagaien industria “Bio”, “Eko” eta “Organiko” aurrizkiak erabiltzen hasi zen, kontrolik gabe. Gehiegitan, oinarri gabeko aipuak ziren. Horregatik, ekoizle ekologikoen Europako epaitegietara jo zuten, beraien eskubideak eta ekoizpen eredu ekologikoa defendatu zitzaten. Urte luzetako gatazka legalaren ondoren, adiera hauek ekoizpen ekologikoarekin lotutako elikagaietarako soilik erabili ahal izatea lortu zen.

Garaipen esanguratsu honen ondotik, ekoizpen eta kontsumo ekologikoa %10etik gorako hazkunde izan du. 2013ko azaroko “Evaluation of the EU legislation on organic farming” txostenaren arabera, EBn biologikoki maneiatutako luraren kopurua bikoiztu egin da 2000-2011 epean, 9,5 milioi hektarea ekologiko izateraino, 240.000 ustiategitan banatuta. Herritarren artean, eskariak are hazkunde handiagoa izan du: 2011n, 19.700 milioi euro fakturatu dira.

EREDU EKOLOGIKOAREN FIDAGARRITASUNA

Aurretik aipatutako txostenean azalartzen den ondorioetako bat da ekoizpen ekologikoa araudia moldatu beharra dagoela, eredu ekologikoa fidagarritasuna eta printzipioen betearazpena bermatu aldera. Martxoaren hasieran Dacian Ciolosek, Europako Nekazaritzako komisarioak, baieztapen horri heldu eta ekoizpen ekologikoa araudia moldatzeko proposamena aurkeztu zuenetik,

ordea, eztabaida piztu da. Esan zuenez, eredu ekologikoa “arrakastaz hiltzeko” arriskuan egotera irits daiteke. Haren arabera, ekoizpenak ezin du eskaria ase, eta gabezia horri aurre egiteko ekoizpen baldintzak arintzeko joera hartuz gero, eredu ekologikoa aldarrikatzen dituen onurak “bentetan” bermatu ahal izatea zaila izan liteke, ereduaren sinesgarritasunaren kaltetan. Horregatik, araudi berria “printzipioetan oinarrituta” egongo dela azpimarratu zuen komisarioak, eta eredu ekologikoa ere erabat bateragarriak ez diren puntuak eta salbuespenak desagertu egingo direla.

Aurkeztutako proposamenak sektorearen baitan adostasun zabala lortuko zuela pentsa badaiteke ere, iragarpenak, ilusio puntu bat sortzearekin batera (aurrera-pausoak proposatzen baitira ereduaren zehaztapenean), egonezina ere ekarri du. IFOAMek, munduko nekazaritza ekologikoko mugimenduak batzen dituen erakundeak, zenbait neurri txalotu egin ditu (ereduaren printzipioei garrantzi handiago ematea eta elkarrekin merkaturatzen duten baserriarren taldekako ziurtapena egiteko aukera izatea, adibidez), baina ardua ere agertu du. Erakundearen irudikoz, indarrean jarri nahi diren zenbait



neurri nekazaritza ekologikoa garapenean laguntzeko baino, kalterako gerta daitezke: sektorea ez dago prest maximoetan osoki oinarritutako araudi bat indarrean jartzeko. Adibide bat: egun, oztopo teknikoak eta ikerketa gabeziak medio, ia ezinezkoa da oilo-txitek ekologikoki haztea. Tes-

tuinguru horretan, eta arrautza ekologikoen ekoizpenak garatzeko aukera izan dezan, txiten jatorriarekin salbuespena egiten da, egokitzapen epe bat ezarrita. Proposamen berriaren arabera, arrautza horien ekoizpenerako, ezinbestekoa izango da txitek 2017tik aurrera sortzez ekologikoa izatea. IFOAMek eta arrautza ekologikoen ekoizleek salatzen dutenez, ordea, hori gauzatzeko ikerkuntzara askoz baliabide gehiago bideratu beharko dira, irtenbideak topatu, sektoreari eskatutako dion eraldaketa sakona baita.

Ekoizpen ekologikoa zerbait ona bada, etengabe moldatzen ari den eredu izatea da. Printzipioak argiak dira, mugak errealitateak jartzen ditu. Zorionez, borondatea izanda, errealitatea ere moldatu daiteke.

ENEK

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoen Kontseilua



Gorka Zozaia
Kimikaria

Hogeita hiru orduko egunak

Biharkoa adibidez. Ordu aldaketek batzuetan parrandarako ordubete gehiago eskaintzen dute, baina ez da hori gaurko gauari dagokiona. Goizaldeko zetan 3rak izango dira eta igande gaixoa 23 orduko eguna izango da. Halaxe gertatu zaio gurean martxoaren azken igandeari, eta kontrakoa urriko azkenari, 1996an Europako udako ordutegia finkatuta gelditu zenetik gutxienez. Ordutegi aldaketen neurria, dena den, duela berrogei bat urte hasi zen zabaltzen petrolioaren krisiaren ondorioz eguzki argiaren aprobetxamendua areagotzeko neurri gisa eta 1981etik aplikatzen da, lau urtean behin berrikusten den zuzentarau baten bidez. Europa izatearen ondorio bat gehiago, tira.

Ordu aldaketarena, baina, ez da ordulariak markatzen digun ordutegi aldrebesaren detaile bat besterik. Pasatu den ekainean idatzi nuen artikulu batean ("Snooze ala ez snooze?") aipatzen nuen bezala, eguzki orduen eta ordularien arteko desfase bat gertatzen da ordutegia zehaztearen ondorioz, XIX. mendetik hona "jet lag sozial" gisa eza gutzen den fenomeno eragiten duena. Hots, eremu geografiko handietan ordulariek ordu bera jasotzearen, herri-tar andanak pairatzen duela eguzkiak eta gorputzak markatzen duen erritmo naturalarekiko desfasea. Guri dagokigunez, atera kontuak desfase hori zein tamainakoa izan daitekeen, ekialderantz ia 2.000 km-ra den Belgraden ordulariak ordu bera markatzen badu. Artikulu hartan azaltzen nuenez, Europa erdialdeko biztanleen %40 ei da "jet lag sozial" hori pairatzen duena.

Berriki, Stefano Maggiolo matematikari italiarrak munduko mapa bat argitaratu du, eguzki eta ordulari orduen arteko desfasea koloreen bidez adieraziz. Irudian mapa horren zati bat jasotzen da, eta zuri-beltzean egonagatik, intentsitateagatik igarri ahal da desfasearen tamaina. Maggiolo gorria erabiltzen du eguzkiarekiko atzerapena adierazteko, zuria da desfaserik gabeko gunea, eta berdea (iru-

dian gorria baino gris argiagoa ematen duena), eguzkiarekiko aurrerapena koloreztatzeko. Hala, ordu-eremu berean, mendebaldeko herrialdeak gorrirantz doaz; ekialdekoak, berriz, berderantz. Merezi du sarean eskegi duen mapari begiratu bat ematea (<http://io.wp.com/poisson.phc.unipi.it/~maggio/lo/wp-content/uploads/2014/01/SolarTimeVsStandardTime.png>).

Maparekin batera eskegitako artikuluan adierazten duenez, matematikariari ideia hau otu zitzaion Salamancan afaltzen ari zela, bertakoek zein berandu afaltzen zuten ikusita.

Arrazoi kulturalak tarteko izan zitezkeen jakitun, eguzkiarekiko ordulariarekiko bezain berandu ote zebiltzan jakin nahian, munduan desfase hau neurtzeki ekin, mapa hau osatu, eta ondorio txundigarri bat atera zuen: globoko eremu geografiko gehienetan ordularia atzeratua dago eguzkiaren ordularekiko, nabarmen gainera. Oso gutxi dira mapan berdean koloreztatutak eta Asian adibidez, gorri intentsoa da nagusi.

Bitxikeria honetaz gain, mapak oso ondo erakusten du ordu-eremuak ze-

hazteko erabili izan den irizpide politikoa zein izan den lekuan leku. Industrializazio garaian, telegrafoaren eraginez baina batez ere tren-sarearen hedatzearekin heldu zen ordu-eremuak ezartzearen beharra, eta XX. mendean zehar forma hartu du. Txinarena adibide esanguratsuetako bat da, ekialdea izanik bere eremu aberats eta populatuena, 1949an ezarri zen ordutegia bakarrak desfaserik gabeko eremu zuria ekialdeko kostan zentratzen du. Gurean, 1942an, Francok Alemania naziarekin bat ezarri nahi ei zuen ordularia, Frantziaren antzera, eta ordutik euskaldunok desfasatuta ditugu eguzki eta ordulariak. Duela gutxi, Espainiako Gobernua, bertako enpresen produktibitatea hobetzearen, ordu aldaketa aztertzen ari dela ere entzun dugu.

Azken finean, horretara mugatzen baita ordularien diktadura. Langilearen energiak nola ustiatu hoberen, optimoen, produkzio eta kontsumo katea bizkortzeko. Eta krisi hau horretan sakontzeko aitzakia besterik ez da. Aprobetxatu ongi, beraz, biharkoa, hogeita hiru orduko eguna izanik, ordulariaren logikatik at, hogeita laugarrena, oso osorik, guretat baita! •



Mapak ondo erakusten du ordu-eremuak zehazteko erabili izan den irizpide politikoa.

GAUR8

{ koaderno } **Garazi Goia**

Denek ez dituzte entzuten

Sare sozialen mugimendua hasi zenean ez ninduen erakarri sortu zen zalapartak. Nire lagun artean, Facebookeko konturik ez daukan gutxieta bat izango naiz. Onartu behar dut jada herdoiltzen ari den diskurtso bat daukadala nire arrazoia justifikatzeko orduan eta behin baino gehiagotan izan dudala tentazioa kontu bat irekitzeko; baina, momentuz, nire horretan jarraitu dut eta orain arte iraun badut, zailena egin dudala uste dut, Facebook zaharritzen hasita dagoen irudipena daukat-eta. Sare sozialekiko menpekotasuna gainditzeko abstinentziaz hitz egiten zidaten batzuek eta ez nuen ulertzen zertaz ari ziren. Twitter deskubritu nuen arte. Erabiltzaile pasiboa naiz batez ere, baina harrapatzen nau eta behin sartzen naizenean konturaterako ordu bat erraz pasatzen zait. Horrela topatu ditut iritzi interesgarriak partekatzen dituzten ezezagunak. Haien jarraitzaile egin naiz, eroso egiten zait nire aukera izan dela jakitea (hamabost urtez ikusi ez ditudan ezagunak lagunak direla aldarrikatzea baino erosoagoa adibidez).

Ihsan Eliacik idazle eta Islamista Antikapitalistak mugimenduko kidearen twitterreko jarraitzaile egin nintzen duela astebete lagun Turkiar baten gomendioz, pasatu den astea Turkiako lehen ministro den Erdoganek twitter blokeatu zuenean.

Pasatu den azaroan, Gezi parkeko manifestazio eta protestetan microblogging sarean gobernuari buruzko iritziak eta kritikak azaldu zituenean, Eliaciken twitterreko jarraitzaile kopurua 70 milatik 200 milara igo zen. Ordutik bere aurkako salaketak jarri dituzte Erdogan gobernuak ordezkariak eta askotan saiatu dira Eliacik isiltzen. Batzuetan pentsatu izan dut, Turkiako Justiziak erruduntzat hartuko balu, bere jarraitzaile izateagatik edo berak egindako txio bat bidaltzeagatik ere errudun bihurtuko ote gintuen bere 200 mila jarraitzaile garenak.

Aurreko astekoa ez da Erdogan oinarritzko eskubideak urratzen dituen lehenengo aldia. Alkohol, homosexualitate eta abortuaren inguruan gizarte polarizatu nahi izan du hainbat alditan. Sinesgaitza dena, ordea, twitter erroitik erauztea dela bere helburua jendaurrean esateko atrebentzia izatea da, eta lasai gelditzen dela, lurralde moderno bat eraikitzen ari den erretorika manipulatatu horren az-

pian. Nire lagunaren hamabi urteko alabak, Abdul Hamid sultana boterean zegoen garaia buruzko ikasgaia izan omen du eskolan. Horrela entzun du lehenengo aldiz adierazpen askatasuna eta autokrata kontzeptuei buruz; hain zuzen, Abdul Hamiden aginte garaian, informazioaren kontrol estua egon zen Turkian eta jarrera zentsuratzailerantz izan zituen hainbat egunkari eta informazio iturriren aurka.

Nire lagunaren alabak ez daki zer den adierazpen askatasuna, baina bitxia iruditu zait egin duen azterketa. Amari galdetu dio ea jendeak nola egiten zuen protesta telefonorik ez bazeukaten. Kalera atera eta manifestazioak egitea ere debekatuta baldin bazeukaten, beraien mezuak bidaltzeko zer egiten zuten galdetu dio. Zaila da hamabi urteko haur batek ulertzea zein larria den egunkari bat ixtea, zein larria den jendea bere ideiak libreki azaltzeko eskubidea oztopatzea. Baina adierazpen askatasunaren esanahia zein

Akaso Erdoganek horregatik egiten ditu horrelako adierazpenak lasaitasunez, badakielako bere botoen gehiengoari eutsiko diola, txioak ez direlako den belarrira heltzen

den ez dakien arren, badaki twitter nola erabiltzen den eta badaki mundu guztira zabaldu daitezkeela bertan jarritako hitzak. Agidanez, gaur egun Turkiako populazioaren %15 da twitterreko erabiltzaile (nire lagunaren alaba barne) eta Erdoganek ez du lortuko jende hori guztia isilaraztea. Hori frogatu dute aste honetan. Hala ere, kontua da, Erdogan jarraitzaileen gehiengo, erlijio zale eta kontserbadoreak gehienak, ez daudelako %15 horretan. Ez da beraien lehentasuna telefono moderno eta sare sozialen erabilpena; eta, hurrengo hauteskundeak iristen direnean, ez dira gogortuko lehen ministroak behin eta berriz egin dituen eztabaida eremua mugatzeko saiakera diktatorialerantz. Akaso Erdoganek horregatik egiten ditu horrelako adierazpenak lasaitasunez, badakielako bere botoen gehiengoari eutsiko diola, txioak ez direlako den belarrietara heltzen. Hori da benetan kezagarria dena. •

Muturreko egoeretanda u den pertsonekin egin du lan, baina desagertutako pertsona baten senideek bizitzen dutena «oke-rena ez bada, kudeatzen zailena den mina» dela aitortzen du. Profesional gisa, pertsona horiei informazioa eskaintzen eta eguneroko bizimodua erabat zapuzten dien gertaerari aurre egiteko baliabideak ematen saiatzen da. «Errealitatean kokatu behar ditugu eta estresa, ezjakintasuna eta esperantza falta kudeatzen lagundu eta irakatsi behar diegu», azaldu du. Elkartasun sareak indartzea ere guztiz beharrezkoa dela uste du: «Familiak ez balira horren bakarrik sentituko, gizartearen sostengua jasoko balute, mina beste modu batera eramango lukete».

Nola eta batez ere zer beharri erantzuteko eratu zen Inter-Sos elkarteak?

Elkarte hau Bartzelonan sortu zen, 1999an, laguntza eta erantzun eske ari ziren desagertutako pertsonen hainbat familiak Bartzelonako polizia-etxean topo egin eta gero. Informazio eta erantzun falta handia sumatu, eta euren artean antolatzea erabaki zuten, bi arrazoi nagusi zirela medio: batetik, beren kasuak argitzeko; eta bestetik, etorkizunean euren kasu berean zeuden familiei laguntzeko. Orduz geroztik, Inter-Sos elkarteak isilean lan handia egin du, ez baita ikusgaitasun handia jaso duen zeregina. Pazientzia eta frustrazioari aurre egiteko indar handia eskatzen dituen arren, aurrerapen handiak lortu ditu elkarteak.

Itxurazko arrazoirik gabe desagertutako pertsonen senideak hartzen dituzue. Zergatik bereizketa hori?

Estatu espainolean, desagertzea ez da delitua. Pertsonak munduaren beste puntan agertzeko eskubidea dute, baldin eta ez badute familia zamarik edota zorrik. Guk beste kasu batzuk lantzen ditugu, arrisku

«Zaila da heriotza bat kudeatzea, baina bederen galera argia da; zailagoa da zer den ez dakigun galera bat onartzea»

«Segurtasun indarrek baliabide gehiago izango balituzte, senitartekoek ez lukete kalean kartelak jartzen edota telebistaz telebista ibili beharrik izango»

edota kalteberatasun egoeran desagertu diren pertsonenak, hain zuzen ere. Esaterako, ustez delitu baten biktima izan diren adingabeenak edota emakume eta gizonenak; buruko gaixotasunak dituzten pertsonenak; buruko endekapenezko gaixotasunak dituzten adineko pertsonenak; kirola egitera irten eta desagertu den jendearenak...

Gertukoren batek bere borondatez desagertzeko erabakia hartzea ez da batere samurra izango. Hori sinetsi ezin duten senitartekoak ere joango zaizkizue elkartera.

Bai, noski. Baina egoera oso desberdina da. Guk ulertzen dugu jendeak ahaztua izateko eta munduaren beste puntan agertzeko eskubidea duela, baina eskubide horren aurrean, familiak ondo dagoela jakiteko eskubidea duela aldarrikatzen dugu, nahiz eta desagertzea erabakitzen duenak familiak ezer jakin nahi ez izan. Zaila da, Datuak Babesteko Legea oso zorrotza delako eta polizia ezin delako informaziorik eman. Kasu batzuetan, Inter-Sos elkarteak ematen du, baina aipatu dugun zentzuan, hau da, senidea aurkitu dutela, baina ez duela ezer jakin nahi esaten zaie. Kasu

hauetan, min handia sentitzen da, baina ez da desagertu den pertsonari zer gertatu zaion ez jakiteak eragiten duenaren berdina.

Jardunaldietan, «Itxuraz arrazoirik gabe desagertzea: ertz asko dituen arazoa» hitzaldia emango duzu.

Ni 2005ean iritsi nintzen elkartera, psikologo gisa. Larrialdi egoera, trauma eta doluen mundutik nator eta bertan geratzea erabaki nuen, gogorrena ez bada, kudeatzen zailena den egoera behintzat badelako. Hau ez da hutsunera egokitzearekin lotutako arazo bat bakarrik, oso alor desberdinak ukitzen ditu. Arazo



«Gertuko pertsona baten desagerpena kudeatzea da zailena, gogorrena ez bada»

honek lan arloan zeresana du, baita alor juridikoan ere, izan ere, oso lege gutxi daude Espainian. Polizien arteko koordinazioa ere asko aurreratu da, baina ez da beti horrela izan. Beraz, ez da galera batera egokitzeko arazo bat; oso alor konplexua da eta herritarrek ez gaude prestatuta hori ulertzeko eta horri aurre egiteko.

Pertsona bakoitza mundu bat da, baina oro har, zein dira gertuko bat galdu duten pertsonen ezaugarri amankomunak?

Pertsonaren egoeraren baitakoa da, askotan, desagerpenaren aurrean duen jarrera, baina

oro har, trauma prozesu guztietan bezala, espero ez zen egoera denez, bere eguneroko bizimodua erabat zapuzten da. Hasieran, shock bat izaten da eta pertsona horiek gertatzen ari zaiena ez dela erreala pentsatzen dute. amesgaizto horretatik edozein unetan esnatuko direla pentsatzen dute. Egunak pasatu ahala, ordea, erabakiak hartu behar direnez eta gauzak egin behar direnez, egoera hori erreala dela konturatzen hasten dira eta horri aurre egiteko baliabideak behar dituzte. Egoera hori denboran asko luzatzen bada, estresa kronifikatu egiten da. Familiak dituen baliabide sozialek eragina dute, bai eta bere biografiak ere. Desberdina da aitona bat desageritzea eta bere emazteak bilatu nahi izatea edota familia zabal bat izatea atzetik, gauza gehiago egiteko aukera dutelako. Desagerpenak zein amaiera duen ere kontuan hartu behar da. Kasu batzuetan, denbora baten buruan, galdutako pertsona bizirik agertzen da; beste batzuetan, berriz, handik denbora luze, mendian hilda.

Psikologo gisa, zer lan mota egin behar izaten duzu familia hauekin?

Ni, lehenik eta behin, errealitatean kokatzen saiatzen naiz. Batzuetan, oso despistatuta, estresatuta eta estu iristen dira, errealitatetik kanpo daude eta hori da arlo psikosozialetik lehenik eta behin landu behar dena. Era berean, laguntza emango dieten sareak sortzea beharrezkoa da. Osasun zerbitzuei, laguntza juridikoari eta abarri buruzko informazio guttia euren esku jartzea oinarritzakoa da. Arlo psikologikotik, errealitatean kokatu behar ditugu eta estresa, ezjakintasuna eta esperantza falta kudeatzen lagundu eta irakatsi behar diegu.

Larrialdi egoeretan zeuden pertsonekin lan egin duzu, baina ezagutu duzun minik sakonean desagertutako pertsonen senideek bizi dutena dela esan izan duzu.

Senitartekoek diote ez dutela hilerrian lorerik uzteko eskubiderik, ez dakitela heriotza baten aurrean dauden ala ez... Pertsona batek senitarteko bat galtzen duenean, mina handia da, baina badaki zer gertatu den eta zer egin behar duen aurrera egiteko. Desagerpen baten aurrean, ordea, pertsona bat erabat izoztuta geratzen da. Egun askotan, desagertutako pertsona ez duela gehiago ikusiko pentsatzen du eta desagertu zen egunean bertan hil zela; hurrengoan, berriz, bizirik topatzeko esperantza du. Clevelanden agertu ziren hiru nesken kasuaren pareko gertaeren aurrean, esaterako, itxaropena sortzen zaie senideei. Mezu kontraesankorrak jasotzen dituzte eta haien baitan mugitzen dira. Hori kudeatzea oso zaila da pertsona batentzat. Zaila da heriotza bat kudeatzea, baina bederen galera argia da; zailagoa da zer den ez dakigun galera bat onartzea.

Pertsona horiek ez daude ez hilik ez bizirik...

Ez, eta senitartekoak balantzaka bezala dabilta. Egun batean, 'zer gatik ez?' pentsatzen dute, eta beraz, itxaropena elikatu dezakete; hurrengoan, berriz, albisterik okerrera jasotzeko prestatzen dira. Oso konplexua da eta pertsona horien osasun fisiko eta psikologikoan eragin itzela du.

Lan gehiago egin daiteke haiei laguntzeko?

Gehiago egin daiteke, bai, pertsona horiek aurkitzeko eta pertsona bat galdu duten senitartekoak artatzeko. Nik ez dut, ordea, perspektiba galdu nahi. Orain ez asko, ez zegoen ezer, eta Inter-Sos elkarteari esker, gauza asko lortu dira: Senatuan batzorde bat sortzea, Generalitateak desagertutako pertsonen senideei laguntzeko bulego bat zabaltzea... Egia da oraindik ere egiteko asko dagoela, besteak beste, doako laguntza psikologiko eta juridikoa ematea, polizien arteko koordinazioa hobetzea, justizia ez izatea borondatezkoa, bitarteko gehiago izatea... Bidea egiten jarraitu behar dugu, beraz.



Argazkiak: Dani CODINA

FLOR
BELLVER
PSIKOLOGOA

Ostegunean abiatuko da, Galdakaon, itxurazko arrazoirik gabe desagertutako pertsonen buruzko topaketa tekniko.

Bertan izango da kasu hauetan trebatutako psikologoa.

maider.eizmendi@gaur8.info

Senideek egiten ari direna nahikoa ez den sentsazioa izango dute, noski.

Bai, hain da traiziozkoa egoera hau, ezen senitartekoen artean kulpasentsazio handia eragiten baitu. Segurtasun indarrek baliabide gehiago izango balituzte, senitartekoek ez lukete kalean kartelak jartzen eta telebistaz telebista ibili beharrik izango edota gehienetan informazio faltsua ematen dieten telefono deiak jasotzen aritu beharko. Horiek ez dira familiak egin beharreko lanak. Familiek uste dute, ordea, gauzak egiteari uztea desagerpenaren aurrean etsitzea eta gertukoa ahaztea dela.

Kasu hauetan, pista faltsu asko jasotzen dituzte senitartekoek?

Bai, asko. Kasurik gehienetan, intentzio onarekin egiten da. Informazioa kontrastatzen ez duen jendearen aldetik jasotzen dituzte deiak, galdutako pertsona han edo hemen ikusi dutela esanez. Hori gauza bat da. Beste kontu bat da intentzio txarrarekin deitzea. Bada hau egiten ari tzen den jendea, bai eta informazioa dutela esanaz deitzen duten igarleak ere. Egoera horretan dagoen pertsona bat ez da igarle baten kontsultara joaten; behar badu, 20tara ere joango da.

Denboran luzatzen bada, nola erreku peratzen dira familia hauek?

Egoera hori kudeatzen ikasten dute, zailtasun handiago edo txikiagoarekin. Lehen esan dudan moduan, familia estruktura, pertsonalitateak, pertsonak dituen baliabideek... garrantzi handia dute. Mina beti hor dago. Bizitza gogorra da eta berriz ere lanera itzultzera behartzen ditu, familiako beste kideak zaintzera behartzen ditu... Egunerokora itzuli behar dute, nahiz eta min horrekin egin. Nik gabezia fisikoa bai, baina presentzia psikologikoa etengabea dela esaten dut; agian, desagertutako pertsona etxean zegoenean baino handiagoa.

Zuen orrialdean, desagertuen datuak jasotzen dituzue. Kopurua atentzioa deitzeko modu-

JARDUNALDIAK

Datorren ostegunean, apirilak 3, egingo dira Arrigorriagako Lonbo aretoan. Gaian aditu diren pertsonak ez ezik, Hodei Egiluz eta Borja Lazaro gazteen senitartekoak ere izango dira.



koa da, agian, jendeak uste duena baino handiagoa.

Bai, noski. Komunikabideen alorean ez dugu zorterik izan. Kasu askotan, senitartekoak dira komunikabideen zerbitzura daudenak eta ez alderantziz. Guk komunikabideen funtzio publikoa aldarrikatzen dugu, bai eta minaren tratamendu egokia ere. Interesik pizten ez duen gaia da. Gogoan daukat orain urte batzuk telebistara joan nintzela eta zuzendariaren ahotik entzun nuela gai horiek alarma eragiten zutela. Gaiak tratamendu egokia jasotzen badu, ez du alarma sozialik eragiten, erantzukizuna

baizik. Gainera, familiak ez baliara horren bakarrik sentituko, gizartearen sostengua jasoko balute, mina beste modu batera eramango lukete.

Berririk ez izateak sortzen duen minaz ari zara. Desagertuaren paradoera jakiteak, nahiz eta berri onik ez izan, lasaitzen ditu?

Nik ez nuke lasaitasunaz hitz egingo. Beste egoera batera pasatzen dira familia horiek. Desagertu diren pertsonen amek, hain egoera gogorra bizi dute nean, zer gertatu den jakin nahi dutela eta edozein berri jasotze-

ko prest daudela esaten dute. Baina informazioa iristen denean, ona ez bada, ez zeudela presatatuta onartzen dute. Kontua da zer gertatu den eta aurrerantzean non egongo den jakin deza ketela. Hor jada ez dago itxaropenerako aukerarik.

Egoera horietan zer eskaintzen diezu?

Informazioa behar dute, hori da gehien behar dutena. Gertatu denaren gogortasunaz hara tago, informazio horrek pausoa ematea ahalbidetzen die. Ezjakintasunarekin bizitzea da estresa kronifikatzen duena.



Mutrikuko Berdel Egunean, arrainak ematen dituen askotariko aukerak ikusi eta dasta daitezke.

Juan Carlos RUIZ |
ARGAZKI PRESS

BERDELA

Gure artean oraindik ezezaguna den arrain urdina erosketa saskian sartzen ari gara, pixkanaka

 **GIZARTEA** / xole.aramendi@gaur8.info

Bizkai eta Gipuzkoako ontziak berdeletan ari dira joan den astetik. Betidanik arrantzatu da, baina ez dira urte asko giza kontsumora zuzentzen hasi zela. Arrantzaleen kofradiek berdela ezagutarazteko egin duten ahalegina emaitzak ematen ari da. Kontsumoa igotzen ari da, baina oraindik bada zer egin.

Berdelaren kanpaina abian da. Joan den astean, ostiralean, atera ziren lehen aldiz Bizkaiko eta Gipuzkoako ontziak itsasora berdel bila.

Balorazio positiboa egin dute arrantzaleek. Arraina kalitate onekoa da eta etxetik oso gertu aurkitu dute, nahiz eguraldi petrala izan duten azken egunotan.

Luze egin zaizkie arrantzaleei kanpaina hasi zain egin dituzten asteak. Galiza, Asturias eta Euskal Herriko arrantzaleek hilaren 8an lortu zuten kuotaren gaineko adostasuna Gobernu espainiarrarekin eta ondorengo egunak Elikadura, Nekazaritza eta Ingurumen Ministerioak bete beharreko tramiteen zain egin zituzten arrantzaleek. Aurreko urteetan, otsailerako, berdeletan

aritu izan dira. Aurten, kontua luzatzen ari zela ikusita, hementxo arrantzaleen ezinegona handituz joan zen. Are gehiago, arraina hemen bertan zegoela eta eguraldia ere lagun zela ikusita.

Neguko kanpainari hasiera ematen dio berdelak, antxoaren eta hegaluzearen aurretik. Alturako itsasontziek eta baxurakoek, bi motatakoek, harrapatzen dute berdela. Baxurako ontzien artean, batzuk ingurasareekin aritzen dira eta, besteak, tretza edo amua erabiliz.

Berdela betidanik harrapatu da Kantauroko uretan. Baina erabile- ra desberdinak izan ditu. Gauzak asko aldatu dira azken urteotan. «Lehen, baxurako itsasontziok bakarrik harrapatzen genuen berdela. Prezioa oso merkea izaten zen, izan ere, merkatuak ez zuen preziazten arrain hau», na-

barmendu du Miren Garmendiak, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiako idazkariak. Ondorioz, eskaera urria zen. «Komertzialki, arazo asko ematen zizkigun berdelak. Ez zegoen eskaerarik eta saldu ezinik ibiltzen ginen», dio.

Nahi adina harrapatzen zuten. «Europak Espainiari kuota ezartzen zion, baina Administrazioak ez zuen batere kontrolik ezartzen. Arrantzara irteten ginen eta guk geuk jartzen genituen gure topeak merkatura begira, saltzeko arazoak zeudelako», kontatu du.

Garai hartan, berdela ez zen giza kontsumora zuzentzen. Harrapatutako berdel guztia izoztu egiten zen. Bi erabilpen izaten zituen. Batetik, tretza-ontziek beitarako erabiltzen zuten. Bestetik, Mediterraneo aldeko arrain haztegietan, tretza-ontziek itsasoan kaiolatan gordeta zituzten atunak



SASOIKOA

BERDELA

eliku eta gizontzeko erabiltzen zuten. Denboraren poderioz, arraste-ontziak, legatzaren kuota jaisten zihola ikusita, berdela harrapatzen hasi ziren. Diru iturri berria zen eurentzat. «Baxurako ontziei arrantzaren zati bat kentzen hasi zitzaizkigun. Hori dela eta, urtetan haserre eta liskarretan ibili gara», esan du.

Euskal arrantzaleen kofradiek berdela ezagutarazteko kanpainak egin izan dituzte. «Arrain hau merkaturatzea izan da gure helburua, berdela gure arrandegietan ikustea», nabarmendu du Garmendiak.

Egindako ahaleginak emaitza eman du eta, gaur egun, Euskal Herriko etxe batzuetan berdela jaten dute. «Gero eta gehiago preziatzen da», bere ustez.

Berdelak lehen zuen balorazio eskasaren arrazoiak galdetuta, bisiguaren adibidea jarri du Garmendiak. «Bisiguarekin gauza bera gertatu zen. Ez zen arrain preziatua eta begira zer gertatu den gero. Nik askotan esaten diet ingurukoei berdela orain jateko, gero prezioa igo egingo dela eta zailagoa izango dela jatea», kontatu du.

ZIGORRA

Azken urteotan, hainbeste berdel harrapatu dutenez, Europak mugak jarri ditu. «2010ean, Europak Espainiari zigorra ezarri zion, kuota gaintitzeagatik. Horren ondorioz, orain guri dagokigun kuotatik zati bat kentzen digute, zigor bezala, aurreko urteetan gehiegi arrantzatzeagatik», azaldu du.

Aurten, 9.000 kilo kendu dizkio kuotatik Europak Espainiari zigorreratik. «Administrazioak guri leporatzen digu horren errua, baina guk ez dakigu arraste-ontziak zenbat ari diren harrapatzen. Kanpaina irekita dagoen bitartean, guk arrantzatu egiten dugu eta kontrola ezartzeko ardua Administrazioarena da. Ez da behar bezala kudeatu, ez da beharrezko neurriak jarri eta ondorioak denon artean ordaintzen ari gara», adierazi du.

Orain iritsi da neurriak ezartzeko unea. Bizkai eta Gipuzkoako arrantzalek bide bakarra ikusten dute: banatzea. «Ezinbestekoa da

berdelaren arrantza beste modu batera kudeatzea. Eta ez dugu beste alternatibarik ikusten. Ministerioak eta guk, bi aldeok, nahi dugu orain gaia ondo kudeatzea», azaldu du.

Partiketa, lehen aldiz, duela bi urte egin zuten. Ontzi mota bakoitzak –arraste-ontziek, ingurasarekoek eta amuko ontziek– bere kuota du. Bizkai eta Gipuzkoako ingurasareko ontziei kuotaren %48,13 dagokie eta %42 amuko ontziei. Azken portzentaia honetatik %2,53 Galizari eman diote. Ondorioz, 2014 eta 2015erako %39,53 geratzen zaie amukoiei.

Galizari zatia ematearen arrazoiak galdetu diogu. «Urtetan, ontzi txiki asko ez dira berdelaren arrantzan aritu. Eta azken urteotan hasi egin dira. Ontzi horiek, nahiz itsasora beste arrain mota bat harrapatzera irten, sareetan berdela katigatzen zaie. Kopuru txikiak dira, baina Galizian era horretako 3.000 ontzitik gora daudenez, urtean zehar gutxieneko kuota bat behar dute. Akordiora iristeko bidea izan da. Probisionalki, bi urterako neurria da. Ondorengo urteetan zigorra jaitsiko denez, kilo gehiago arrantzatu ahal izango dute eta horrekin nahikoa izango dute».

Behin modalitate bakoitzak aurten izango duen kuota zehaztuta, kopuru horren barne kudeaketa erkidego, elkarte edo herrialde bakoitzaren esku uzteko eskatu dute euskal arrantzaleek. «Orain arte, arrantza oso egun gutxitan kontzentratu izan dugu eta ondorioz, merkatuan ez dugu prezio onik lortu. Modalitate bakoitzean ari diren ontzien artean kuota banatuz gero, bakoitzak ondoen datorkionean arrantzatuko du, eta prezio hobea lortuko du».


«Prezioa oso merkea izaten zen, merkatuak ez zuen preziatzen. Lehen, berdela izoztu eta beitarako erabiltzen zen. Ez zen giza kontsumora bideratzen»

«Orain arte berdela arrantzatzen aritu direnei kuota handiagoa eman behar zaie, noski. Eskubide historikoak errespetatzeko eskatzen dugu»

{ Omega 3 }

**KANTAURI
ITSASOKO
ARRAIN
URDINA**

Berdela oso arrain osasungarria da, daukan koipea dela eta. **Omega-3 azido poliasagabeetan** aberatsa da. Horrez gain, fosforo, magnesio, B12 bitamina eta D bitaminaren iturria da.



Denera, 12.500 kilo harrapatu ahal izango dituzte Gipuzkoako eta Bizkaiko ingurasare-ontziek. Kanpainaren hasiera honetan, eguneko gehieneko kopurua ezartzea erabaki dute Bizkaiko eta Gipuzkoako kofradiek. Zehazki, 20.000 kilo arrantzatu ditza- ke ontzi bakoitzak egunean. «Kanpainak berak esango digu horrela jarraitu ala ez. Daukagun kuotari ahalik eta etekin handie- na ateratzeko ahaleginak egingo ditugu», esan du Garmendiak.

ESKUBIDE HISTORIKOAK

Partiketa egiterakoan, beharrez- koa ikusten dute eskubide histo- rikoak errespetatzea. «Orain arte berdela arrantzatzen aritu dire- nei kuota handiagoa eman behar zaie, noski. Beste arrain mota ba- tzuk arrantzatu dituenari ere eman behar diogu? Agian zerbait

bai, baina irizpideen artean esku- bide historikoak ponderazio han- diagoa izan behar du», dio.

Txitzarroarekin gertatzen de- na aipatu du. «Txitzarroa ere ba- natu da, berdelarekin batera. En- tzun al duzu ezer? Galizarrek erdia baino gehiago daramate. Zergatik? Horretaz bizi izan dire- lako. Guk protestarik egin dugu? Ez. Eskubide historikoak denoi errespetatzeko eskatzen dugu. Galizarren eta asturiarren pro- testak entzun ditut. Eskubideak komeni zaienean errespetatzen dituzte, besteetan ez», bota du.

Haien jarreraren aurrean, zera esan du: «Guk berdelari merezi duen balioa emateko esfortzua egin dugu eta orain denek balia- tu nahi dute hori; ez zaigu zilegia iruditzen».

Bakoitzari berea emateko eska- tzen du. «Beti berdeletan aritu di-



Bermeoko ontzi bat, berdela ateratzen.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ren ontziek ez dute beste alternatibarik. Legatzaren kuota banatuta dago eta hor ezin dute sartu. Nik legatza arrantzatzeko eskubiderik ez badut, eta berdelaz bizi izan banaiz urte horietan, utzi niri berdela harrapatzen. Tristea da, baina horrela daude gauzak. Orain dela 25 urte, honetara iritsiko ginenik ez zitzaigun burutik pasatu ere egin», esan du Garmendiak.

Merkatuaren eskaera nahikoa den galdetuta, zera dio: «Prezioa igo egin da, baina ez guk nahi adina. Lehen, berdelari etekina ateratzeko arrain kopuru handia arrantzatu behar genuen. Bestela, ez zuen gastua konpentsatzen. Orain, merkatuaren eskaerari era egokiagoan erantzun nahi dugu», argitu du.

Berdelaren prezioak gorabehera handiak izaten ditu. «Duela 25

urte, 30-33 zentimo (pezeta) egiten zuen kiloak. Baina amuko ontziak bakarrik ibili direnean eta arrain gutxi porturatu denean 2 euro ere egin izan du. Horixe da kudeaketa eta partiketa honekin ekidin nahi duguna. Nire ustez, nahiz eta kilo gutxiago izan, etekin hobea aterako diogu», azaldu du, esperantzaz.

Mutrikuko Berdel Eguna arrain hau ezagutarazteko egindako ahaleginaren emaitza da. Garmendiaren ustez, bide horretan aurrera egitea beharrezkoa da. «Lehen, arrandegietan, berdela ez zen ikusi ere egiten eta orain ezaguna izaten hasi da».

Baina aurrera begira, garbi dauka badela zer egina. «Berdela arrain ona da eta oraindik balore handiagoa eman behar zaio», esan du.

ETXEEN %40AN BAKARRIK DA OHIKO JAKIA

Eroskiren Elikaduraren Eskolak ikerketa egin du Araba, Bizkai eta Gipuzkoako kontsumitzaileen artean. Internet bidez egin du inkesta eta datu argigarriak eman ditu.

Batetik, lehendik jakina zena berretsi du: berdela oraindik arrain ezezaguna da gure artean. Izan ere, etxeen %40an bakarrik da ohikoa arrain hau erostea. Bizkai eta Gipuzkoan kopurua handiagoa da -%45- eta Araban txikiagoa, %35etik beherakoa.

Are gehiago, Eroskiren Elikaduraren Eskolak egindako ikerketaren arabera, inkestan parte hartu dutenetatik %48k adierazi du berdela beste arrain batzuen aurrean berezia egiten duten elikadura ezaugarriei buruzko ezagutza. Eta gainera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako biztanleen %67k ez zekien hil honetan berdelaren kanpaina hastera zihoanik.

Berdela kontsumitzen duten etxeen %87an, arraina hurbileko lojan jasotakoa izatea garrantzitsua da, freskotasunaren berme bezala. Gaur egun berdelaren kontsumitzaile direnen artean, 10etik 6k esan du hurbileko portukoa izanez gero berdela erosiko lukeela.

Eroskik berdelaren aldeko apustua egingo du. Hasi berri den kanpainan, 40.000 kilo inguru -arrantzatutako kopuruaren arabera- erosteko asmoa du. Helburua kontsumoa bultzatzea denez, Gipuzkoako Arrantzaleen Kofradiak positibotzat jo du.



SASOIKOA

BERDELA

infraganti IRAIA OKINA

Trazu artean ematen ditu egunak, liburuak, afixak edota bereizleak ilustratzen. «Ilargia esnatu da» ipuinerako egindako marrazkiek urrezko plaka eskuratu zuten Bratislavako Ilustratzaileen azken Biurtekoan eta sariak Japoniako ateak zabaldu dizkio. Okinak guri bere sormenaren tenpluko sarraila ireki digu.

A itaren eta osabaren margolanek dekoratu zuten bere haurtzaroa. Attrezzo bera aurkituko du Lurrek, sabelean daraman alabatoak. Haurdunaldiaren puntu gorenean hartu gaitu atsegin eta pausatu, eta, nork daki, le-rook argitaratzerako alabaren aurpegia ezagutuko du, agian.

Durangon jaio zen Iraia Okina, 1980. urtean. Ume gehientzuen antzera, ipuinak entzuten harrapatzen zuen loak. Gurasoen ahotik entzundako istorioek baino, paperean kolore biziz agertzen ziren marrazkiek bereganatzen zuten Iraiaren arreta. Margoekin aritzea gustuko izanik, ez zuen zalantzarik eduki Arte Ederren alde egiterakoan. Egun, haurtxoen ipuintxoak dekoratzen dituzten ilustrazioetako batzuk bereak dira.

Ilustratzailea da Okina. Etxeko ganbaran duen laborategi partikularrean, ipuinak, liburuak, afixak edota bereizleak ilustratzen igarotzen ditu egunak. Artekaosa ordenatzea dela entzun diogu artistaren bati baino gehiago. Ordena, baina, ez da nagusi bere sormenaren tenpluan. Irribarrea ezkutatu gabe azaldu digu bere kaos inspiratzailea zer-nolakoa den: «Produzitzen nagoenean, ni bakarrik igo naiteke ganbarara. Ezin duzue imajinatu ere egin nola izaten dudana... Pintura poteak non-nahi, inspiratzaile zaizkidan irudi edota elementuak motibatze eta animatzeko estrategikoki kokatuak...». Orain, baina, haurdunaldiak eragin ohi duen habiaren sindromea dela medio, ganbara txukun eta garbi du. «Ez dakit hormonengatik izan ote den, baina haurdunaldia ez

da izan sortzeko momentu aproposa niretzat», bota digu azalpen gisara.

Atsedean hartzeko moduan da, hala ere, Okina. Izan ere, bere azken lanek, Joxantonio Ormazabalek idatzitako «Ilargia esnatu da» ipuinerako egindako ilustrazioek, urrezko plaka eskuratu zuten Bratislavako Ilustratzaileen Biurtekoan. Ilustratzaileen artean, oso ezaguna da Eslovenian egiten den lehiaketa eta pozarren da bertan eskuratutako sariarekin. Hainbat hilabete igaro dira irailean garaipenaren ezitia dastatu zuenetik. Zaporeak oraindik badirau, izan ere, Bratislavan lortutako izen onak Japoniako ateak zabaldu dizkio. Zehazki, Hiratsuka hiriko arte museoan aurkitu ahalko da, urtebetez, durangarraren obra.

Heriotza du iturburu «Ilargia esnatu da» ipuinak. Orriak argia ikusi aurretik, alabaina, betiko itzali zen ipuinaren idazlea den Joxantonio Ormazabal. «Gogorra, oso gogorra izan zen. Joxanek testua idatzita utzi eta hil egin zen. Hantxe gelditu nintzen ni, zer egin oso ondo ez nekiela», ekarri du gogora.

Ormazabalen heriotzak erabat eraldatu zituen Okinaren lehen asmoak. Doluak kolore biziak lausotu, trazuak kontrolatu eta poesia lerro artetik askatu zuen. Ormazabalen familiarekiko errespetuz, gainera, urtebete eduki zuen ipuina argia ezagutu zain. «Joxani omenaldia egiteko modua izan zen Elkarrek liburu argitaratzea. Eta horregatik aukeratu nuen zuhaitza, ilustrazioen protagonista nagusia, berak bizitza eta heriotzaren sinbolo gisa erabiltzen zuen-eta», azaldu digu, lotsati.

Ezaguna da Bratislavako lehiaketa, bertan 49 estatutako ilus-

tratzaileek hartzen dute-eta parte. Estatu espainoletik lehiaketara zihoazen hamabost ordezkarien artean egotea nahikoa sari zen Okinarentzat, eta ez zuen gehiago espero. Iritsi zen, ordea. Eta posta elektronikoz jaso zuen urrezko plakaren berri. «Izugarrria izan zen», adierazi du, uneko sentimenduak gogora ekarriz.

Ez zen Okina eta Ormazabal eskuz esku aritzen ziren lehen aldia. «Zirkua Amets» egitasmoak elkartu zituen, 2008. urtean. Zortekoak izan ziren orduan ere. Saria beharrean, Etxepare Beka irabazi zuten. Laguntza honi esker, argitaletxerako bidea egin zuen ipuinak. Ederra izan zen Okinarentzat beka hura lortu izana: «Ilustratzaileen munduan murgiltzea izaten da zailena, ilustratzaile bat behar den

unean zurekin gogoratzea, eta, bekari esker, maila batean bada ere, hori lortu nuen».

Ez da lan samurra ilustratzailerena. Inolako soldata finkorik gabe, lana bukatu orduko kezka begiratzen du zuriz duen egutegia. Garantia eta segurtasun faltak bestelako lanak probatzera eramanez izan du Okina, baina haietan denborak ihes egiten zion sentsazioa zen jaun eta jabe. «Alde batetik, gustatuko litzaidake zortzi orduko lansaioa egin eta hilabete amaieran soldata finkoa izatea, bestetik, baina... Ez da nire estiloa», dio barre artean.

Etorkizuna marrazki artean ikusten du Okinak eta bizitza estiloa ere eraldatu behar izan du horretarako. Euskal Herria atzean utzi eta Burgos probintzian balduta dagoen Recuenco herria



hartu du bizileku. Han ematen ditu egunak, astean zehar bere etxekoak biztanle bakar dituen herritxoan, ortuan eta sorkuntzan. «Euskal Herrian ezinezkoa nuen etxebizitza bat erostea, nik ez dut soldata finkorik eta horrela hipoteka lortzea ezinezkoa da. Hemen, merke erosi genuen etxetxoa eta gu geu eraikitzen ari gara. Lasaitasun honekin, gustuko dudana egiten jarraitu dezaket», esan du, argi. Kobertura ere iristen ez den parajea, zer margotu pentsatzen ematen du eguna.

Arte Ederrak bukatu eta berehala ohartu zen artearen mundua ez zela zirudien bezain samurra: «Karreraren, artearen diziplina guztiak erakusten dizkigute eta espektatiba mordoa-rekin ateratzen gara. Errealitatea, baina, ez da horren

orokorra. Zehaztasunetan sartu eta horretan zentratu behar dugu». Nondik jo oso argi ez zuela, irakasle baten gomendioari jarraitu eta ilustrazioaren bidea egiten hasi zen. Laster iritsi zen “Irudimena hegan”, bere lehen proiektua. Ez du oroitzapen ederrik bere estreinako lanaz: «Denbora muga batekin eta espazio txikian marraztu behar nuen lehen aldia zen eta ez nengoen batere ohituta».

Estilo berezia da Okinarena; enkargu bakoitzeko erantzun artistiko desberdina eskaintzeko gai den arren, estilo pertsonala du. Iradokitzaile eta fina, adituen arabera. Bere estiloa, baina, prozesu luze baten ondorioa da: «Ilustratzaile mordoa dabil argitaletxeen ateak jotzen aurrera eta atzera. Nire burua saltzea, gainera, egiteko zailena da nire-

Bratislavan lortutako urrezko plakak Japoniako ateak zabaldu dizkio. Zehazki, Hiratsuka hiriko arte museoan aurkitu ahalko da, urtebetez, durangarraren obra

Heriotza du iturburu “Ilargia esnatu da” ipuinak. Orriak argia ikusi aurretik, alabaina, betiko itzali zen ipuinaren idazlea den Joxantonio Ormazabal

tzat, eta hortaz, zer edo zer pertsonalagoa eta originalagoa eskaini behar nuela erabaki eta nire mintzaira bisuala topatzeko prozesuan murgildu nintzen».

Hilabete luzeak eskaini zizkion Okinak egiteko horri eta gogo handiagoarekin jo zituen, ondoren, argitaletxeen ateak. Hamaika lan egin ditu geroztik.

Sormenak eragiten duen plazeraren eta irudimen faltak dakarren frustrazioaren artean lehiatzen ematen ditu egunak. Eta lan pertsonalak egiteko ohi-turarik ez duen arren, arkatza horretarako ere hartzekotan da. «Orain, zer erakutsi badudala uste dut» esanez, bere hurrengo urratsak nondik nora joan daitezkeen iragarri du. •

Bilboko alde zaharrean egin
genuen hitzordua Iraia
Okinarekin.
Haurdunaldiaren azken
txanpan hartu gintuen.
Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI
PRESS

oihana.llorente@gaur8.info

#M27Greba

Galder Gonzalez

Pozez gainezka ikusi ditut ostegun honetan ikasle mugimenduak eginiko greba orokorreko irudiak. Pozez gainezka ikusi ditut aurreko egunetako itxialdi, batzar eta abarren argazki eta bideoak. Eta hori gutxi balitz, Euskal Herrian hain ohikoa den poliziaren presentzia Estatuan zehar ere hedatu dela ikusi dut, eta horrek ere poztu nau: frakaso eskolar hutsa diren kolore ezberdineko txakurrak kalera atera dira euren aurkari gorena kolpatzeko, hau da, egoera aldatu nahi duen ikasle ezkertiarra.

Asteazkenean grisak, barkatu, urdinak, Madrileko Konplutentsean sartu eta 50 ikasle pasatxo atxilotu zituzten. Horrek hainbat gaztelar asaldatu ditu, uste zutelako horrelakoak “diktaduran” bakarrik gertatzen zirela. Laster gogorarazi genien saretik batzuei orain hamarkada bat 84 ikaslek gaua pasatu genuela Iruñeko komisaria batean euskarazko unibertsitatea defendatzeagatik. Egun batzuk lehenago ere Mendebaldeko Indietako 29. Erregimentu Kolonialaren Konpainiak, barkatu, Ertzaintzak, Gasteizen kolpeka sartu eta ikasleen buruak irekitzeari ekin zion. Iruñean Foralak, Alaitzen eta Altsasun Guardia Zibilak eta Leioan beltzak ikasleen aurka aritzen ziren bezala LOMCE eta EU2015 estrategiaren aurka jartzeagatik.

Garai interesgarriak bizi ditugu berriro ere. Historia bukatu zela esan zuten horiek guztiek arrazoirik ez zutela behin eta berriro ikusten ari gara. Zorionez ikasleria horren erakusgarri da, zorionez Euskal Herrian ikasleria kontsekuentea dugu, borrokarako prest. Agian kasu gehiago egin beharko genieke, agian egunkarietan portada gehiago eman, agian komunikabideetan dituzten borroka errealek gehiago jorratu beharko genituzke. Ez paternalismoagatik, kontrakoa: eskerrik asko esateko. •

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Harbisson

Neil Harbissonek arte garai-kidea lantzen du. Londresen jaio zen, 1982an. Umea zela, akromatopsia diagnostikatu zioten, hau da, koloreak antzemateko ezintasuna. Burezurtean jarrita daukan antenari esker, miresten dituen margolanen koloreak entzun ditzake. «Argi frekuentzia jaso eta txip bati bidaltzen dio. Hark argi frekuentzia soinu frekuentzia bihurtzen du. Picasso eta Andy Warhol entzun ditzaket. Isiluneak ere badaude. Beltza isiltasuna da», dio.

> Etxeak

Iaz, Filipinar Irletan, tifo batetik bizilagun asko etxerik gabe utzi zituen. Orain, Tximeleta Etxea aurkeztu dute. 11 metro karratu neurtzen du, aurrez fabrikatua da eta 15 minutu nahikoa dira hiruzpalau pertsonaren artean muntatzeko. «Hondamendia- ren aurrean, oso erantzun azkarra emateko aukera eskaintzen du, eta egitura iraunkorra dauka etxeak», adierazi dute. Filipinetako agintariak 5.000 tximeleta etxe erosteko asmoa agertu dutela diote hainbat iturrik.

> Te Kanawa

Kiri Te Kanawak bere 70. urtebetetzea Londresko Covent Gardenen ospatu du. 17 urte zeramatzan bertara itzuli gabe. 1971n, Covent Gardenen egin zen ezaguna, hain zuzen ere, Zeelanda Berriar jaiotako sopranoa. Zer diren gauzak, Londresen ikasle zela ikusi zuen lehen opera abestu du, “Le fille du régiment”, Gaetano Donizettirena. «Covent Gardenen kantatzea zerua ukitzea bezalakoa zen niretzat. Hegazti baten moduan zain egoten jakin dut», esan du Kiri Te Kanawak.

> Elektronikoak

Zaborretara jaurtitzen den material elektronikoa biltzen egiten du aurrera Nairobiko Kibera auzo txiroko bizilaguna den Leonardek. Bertan ia milioi bat pertsona bizi dira, eta gehienak, baldintza kaskarretan. Leonard bezala, asko dira zaborretara botatako material elektronikoa biltzen aritzen direnak eta zorteko egunetan 35 bat euro jasotzen dituzte. 2017. urterako, hondakin elektronikoen kopurua, mundu mailan, 65 milioi tonatik gorakoa izan daitekeela aurreikusten da.

> Katalunia

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak baliogabetzat jo du Kataluniako Parlamentuak onartutako subiranotasun aldarrikapena. Madrilgo magistratuek aho batez eman diote arrazoia Gobernu espainolak jarritako helegiteari, baina ez puntu guztietan. Kataluniako alderdi nagusiek ez diote baliorik aitortu Konstituzionalaren erabakia- ri. Datorren apirilaren 8an, Espainiako Kongresuak Kataluniako Parlamentuaren eskaria aztertuko du. Eskariak, baina, ez du aurrera egingo.



GUREGIPUZKOA.NET

ERRITUALAREN XARMA

Apustua hasi baino lehen, harria pisatu beharra dago, eta harri-jasotzaileen lana bera bezain garrantzitsua da aurreko errituala. Eibarko zezen-plazan egin da 1917. urteko irudia. Jokoa eta apustua elkartu dira plazan, sufrimendua eta gozamena kulunkan, orain gora, orain behera. Erraz samar pisatu du gizon kuadrillak harria, harri-jasotzaileek altxatuko dutena baino aiseago, segur aski. © CC-BY-ND: Indalecio Ojanguren. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Artxibo Orokorra.

Mikel Olasagasti
Sistema administraria



Azken agurra?

Denei iristen zaie euren azken eguna, eta batzuei, euren azken eguna iritsita ere kostako zaie joatea». Egin dezagun 12 urte atzera. Mir espazio estazioak ozeanoan amaitu zituen bere egunak, AEBetan Dorre Bikien aurkako erasoak gauzatu zituzten, Apple etxeak lehen iPodak kalera-
tu zuen eta gaur egun besteak beste tabernetan ia edozein eztabaida amaitzeko erabiltzen den Wikipedia publiko egin zen. Izango da Mir edo VHS zer den galdetzean zer den ez dakien norbait, baina beste 3 adibideak denok ezagutzen ditugu. Eta Windows XP?
2001. urteko abuztuaren 24an amaitu zuten Windows XPren lehen bertsioa eta, ondoren, irailean, Microsoft-en sistema eragile berria instalatuta zuten lehen ekipoak eros zitezkeen. Dendetan urriaren 25an jarri zen salgai eta oraindik buruan gordeta ditut albistegietan ikusi nituen erosteko ilara luzeak. Hamabi urte pasatxo eta ordudanik Microsoftek 3 bertsio berri ateratu zituen arren, XP oraindik munduan gehien erabiltzen den 2. sistema eragilea da hainbat iturriren arabera eta beste batzuek hirugarren postuan kokatzen dute. Beraz, ekipo mordoa dago oraindik XP bertsioarekin. Eta ez da harritzekoa.

Windows XP kaleratu baino urte bat lehenago, Windows 98 ordeztu zuen ME edizioa eta NT4ren eboluzioa zen enpresentzako Windows 2000 kaleratu ziren. Lehena erabili duenak nik adinako gorrotoa izango dio eta Windows 2000, askoz egonkorragoa zen arren, oso motela zen etxeko sistema bezala. Linuxen mahaigaina erabiltzea oso zaila zen erabiltzaile arrunt batentzat eta Apple etxearen OS X-ak oso merkatu txikia zuen oraindik. XP, Windows 2000 bertsioa oinarri hartuta, etxerako zein enpresetarako sortutako sistema zen, 98 eta ME baino askoz egonkorragoa eta 2000 baino arinagoa. XPren eboluzioa arrakasta gutxiko Vista izan zen, ekipo berrietan instalatuta etorri ez balitz inork gutxi erabiliko zuen siste-

ma. Honek guztiak bilakatu du XP horrenbeste urtetan gehien erabili den sistema eragilea.
Baina Mir espazio estazioak bere egunak 2001. urtean amaitu zituen moduan, XPk 2014ko apirilaren 8an amaituko du bere ibilbidea. 2009ko apirilean amaitu zitzaion "bizitza orokorra" eta 2014ra arte euskarri luzatuari eutsi dio. Baina kito, amaitu da, eta oraindik erabiltzen duenak arazo larriak izango ditu. Bizitza amaitzeak ez du esan nahi funtzionatzeari utziko dionik, baina bai beharrezkoak diren segurtasun konponketak ez jasotzea adibidez. Konponketa hauek gabe eta ordenagailua Interneten nabigatzeko erabiltzen bada, erasoak eta 'garaitua' izateko aukera asko ditu, gehiegi, eta kezkatzekoa da.
Hainbat tokitan ikusten ditut oraindik XP makinak eta kezka eta arduraren sortzen didate. Zein ote da arrazoa beste zerbaitegara ez mugitzeko? Bertsio berriei beldurra? Beti kosttzen

da bertsio berri batera ohitzea eta arazoa izan daiteke atera osteko lehen egunean aldatzen bada, baina teknologia aurrera doan heinean gauzak konpondu eta hobetzen direnez, ezin atzean geratu. Ekipoa motel joateko beldurra? XPren ondoren atera zen Vista bertsioak egonkortasun eta errendimendu arazo larriak bazituen ere, ondoren asko hobetu da egoera. Gainera, betidanik egon dira Linux-en errekturso gutxierekin ondo dabilzan banaketak.
Arrazoa bat dela edo bestea dela, jakin babesik gabe geratuko dela sistema eta ahal bezain azkarren aldatzea aholkatzen dela. Gogoratu aukera libre eta modernoak ere badirela, baita ordenagailu zaharretarako ere. Epe luzera begira, kaleratzear den Ubuntu 14.04 LTS, Debian 7 edo CentOS bera ere probatzea aukera bikaina izan daiteke. Sistema zaharrak eguneratu gabe izatea ez da norberarentzat soilik kaltegarria, inguruan dauden sistemei erasotzeko abiapuntu ere bilaka daiteke. •

End of support			
End of support refers to the date when Microsoft no longer provides automatic fixes, updates, or online technical assistance. This is the time to make sure you have the latest available updates or service packs installed. Without Microsoft support, you will no longer receive security updates that can help protect your PC from harmful viruses, spyware, and other malicious software that can steal your personal information. For more information go to Microsoft Support Lifecycle.			
Client operating systems	Latest update or service pack	End of mainstream support	End of extended support
Windows XP	Service Pack 3	April 14, 2009	April 8, 2014
Windows Vista	Service Pack 2	April 10, 2013	April 11, 2017
Windows 7*	Service Pack 1	January 13, 2015	January 14, 2020
Windows 8	Windows 8.1	January 9, 2018	January 10, 2023

* Support for Windows 7 RTM without service packs ended on April 9, 2013. It is time to install Windows 7 Service Pack 1 today to continue to receive support and updates.

Microsoft-en hainbat produkturen bizitza zikloa. GAUR8

arkitektura / zientzia / teknologia

3 BEGIRADA:



GAUR8 ireki gure leihoa



4 0 3 2 9

9 7 7 1 8 8 7 6 7 5 0 0